



2014 UZT. 24

Aprobado por Consejo de Administración (e)an onartua

Hernani,

2014 UZT. 24



Idazkaririk
[Handwritten signature]

OBREN KONTRATAZIOA PROZEDURA IREKIAREN BIDEZ

ADMINISTRAZIO KLAUSULA PARTIKULARREN PLEGUA

EZAUGARRIEN KOADROA

KONTRATUAEN XEDEA	HELBURUA	KODIFIKAZIOA
EPELEKO (BERGARAKO) KONPOSTATZE-PLANTAREN ETA HONDAKINEN TRANSFERENTZIA-GUNEAREN OBRAK ETA INSTALAZIOAK BURUTZEA ETA HORIEK MARTXAN JARTZEA	2014E	CPV: 45213280

AURREKONTUA

Zenbakietan	Letrekin
LEHIAKETAREN OINARRIZKO AURREKONTUA : 6.924.243,81 € (BEZa sartu gabe)	SEI MILIOI BEDERATZIREHUN ETA HOGEITALAU MILA BERREHUN ETA BERROGEITAHIRU EURO ETA LAUROGEHITA BAT ZENTIMO (BEZa sartu gabe)
BEZ: 1.454.091,20 €	MILIOI BAT LAUREHUN ETA BERROGEITA HAMALAU MILA ETA LAUROGEHITA HAMAIIKA EURO ETA HOGEI ZENTIMO
BALIO ESTIMATUA, kontratuan aurreikusitako aldaketa guztiak barne (SPKLTBaren (Sektore Publikoko Kontratuaren Legearen Testu Bateginaren) 88. artikulua): 7.240.644,71 € (BEZa sartu gabe)	ZAZPI MILIOI BERREHUN ETA BERROGEI MILA SEIREHUN ETA BERROGEITA LAU EURO ETA HIRUROGEHITA HAMAIIKA ZENTIMO (BEZa sartu gabe)
BEZ: 1.520.535,38 €	MILIOI BAT BOSTEHUN ETA HOGEI MILA BOSTEHUN ETA HOGEITA HAMABOST EURO ETA HOGEITA HAMAZORTZI ZENTIMO

EGIKARITZE-EPEA

ATZERAPEN-ZIGORRA

SEI (6) HILE	SPKLTBaren 212.4 artikuluan aurreikusitakoak (3/2011 ELD) hauek dira: 0,50 kontratuaren prezioko 1.000 euro bakoitzeko zigorrak egunero, atzerapen egun bakoitzeko.
--------------	---

(Handwritten signature)
Isazkariak,

PREZIOAK BERRAZTERTZEKO FORMULA

EZ DAGOKIO PREZIOAK BERRAZTERTZEA

BERMEAK

Behin-behinekoa	Behin betikoa
222.313,63 € (lehiaketaren oinarrizko aurrekontuaren % 3a - BEZa sartu gabe-)	Esleipenaren zenbatekoaren % 10 -BEZa sartu gabe-

ENPRESA SAILKAPENA

TALDEA	AZPITALDEA	KATEGORIA
A	1	E
A	2	E
C	2	E
C	3	E
C	6	D
E	1	D
G	3	D
G	4	D
I	5	D
I	6	D

LEHIAKETAREN PUBLIZITATE GASTUEN ZENBATEKO MAXIMOA

Publizitate gastuengatik eman beharreko zenbateko maximoa 3.000,00 eurotan ezartzen da.

ALDAERAK

Onarpena	Baldintzak, modalitateak eta ezaugarriak
EZ	EZ DA ALDAERARIK ONARTZEN.

FORMULA ARITMETIKOAK EZARTZEAGATIK BALORATZEN DIREN ESLEIPEN IRIZPIDEAK

Irizpidea	Haztapena
1.- Prezioa	0tik 55 puntura

FORMULA ARITMETIKOAK EZARTZEAGATIK BALORATZEN EZ DIREN ESLEIPEN IRIZPIDEAK

Irizpideak	Haztapena
2.- Proposamen teknikoa:	0tik 30 puntura

	<p>proposamen teknikoaren balorazioa konpostatze prozesuaren teknologiaren eta instalazioen definizioari eragiten dieten ezaugarrietan oinarrituko da soilik. GHK-k Egikaritze Proiektuaren Memoriaren 8. Eranskinean definitutako konpostatze prozesu baten alde egin du, eta dokumentu hori konpostatze instalazioak zehazteko oinarri bezala erabiliko da.</p> <ul style="list-style-type: none"> ○ Proiektua eta obra oro har ezagutzea..... 3 ○ Instalazioak biooxidazio tuneletan (itxituretan barne)..... 6 ○ Aireztatze eta lixibiatuen bilketa sistemak..... 6 ○ Lixibiatuekin eta urarekin ureztatzeko sistemak..... 3 ○ Usaina kentzeko instalazioa..... 6 ○ Konpostatze prozesuaren instalazioa eta kontrol-sistema..... 6 <p>Irizpide bakoitzaren puntuazio maximoa 6 punturainokoa da, eta hautapen-prozesuan jarraitzeko irizpide horietako bakoitzean gutxienez 3 puntuko puntuazioa izan behar dela ezartzen da.</p>	
3.-	<p>Epea eta plangintza</p> <p>Obrak egiteko gehiengo epea 6 hilekoa izango da, kontratua sinatzen den unetik zenbatzen hasita.</p> <p>Lehiaketan parte hartzeko, obrak egiteko epea frogatu beharko da.</p> <p>Plangintzak ondoko ezaugarriak garatu beharko ditu:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Gantt-en diagrama - Ibilbide kritikoen analisia - Baliabideak esleitzea - Baliabideen eta erosketen hileko kostua - Kutzako fluxua <p>Hautapen-prozesuan jarraitzeko gutxienez 10 puntuko puntuazioa izatea ezartzen da.</p>	Orik 15 puntura

IRIZPIDE BALIOAZTAGARRIEN BALORAZIOA FORMULA ARITMETIKOEN BIDEZ (PREZIOA)

<p>Onartutako proposamenei dagokien eskaintza ekonomikoen puntuazioa kalkulatzeko ondoko formula erabiliko da:</p> <p>EB: Eskaintza baten Bajaren ehunekoa= $100*(LA - EP)/LA$</p> <p>Non: LA: Lehiaketaren aurrekontua EP: Baloratu beharreko eskaintzaren prezioa</p> <p>Eskaintza ekonomikoak ondoko baloreen arabera puntuatuko dira:</p> <p>Baja maximoa: 55 puntu Baja ertaina: 50 puntu Baja ertaina - % 5: 45 puntu (Baja Ertaina > % 5 bada aplikatzen da, soilik) Baja ertaina - % 10: 35 puntu (Baja Ertaina > % 10 bada aplikatzen da, soilik) Baja 0 (Eskaintzaren Prezioa=Lehiaketaren Aurrekontua): 0 puntu</p> <p>Baloretako biren arteko tartetean dauden bajen kasuan, tartearen muturreko baloreen artean linealki tartekatzen kalkulatu da puntuazioa.</p>

Baja ertaina kalkulatzeko ondoko irizpideak ezarriko dira:

- Eskaintza bakarra baloratzen bada, aurkeztutako eskaintzaren baja izango da Baja ertaina.
- Eskaintza 2 baloratzen badira, Baja ertaina izango da eskaintza bien baten batez bestekoa.

Hiru eskaintza edo gehiago baloratzen badira, Baja ertaina kalkulatzeko ez dira kontuan izango baja handiena duen eskaintza ezta baja txikiena duena ere.

ERANTZUKIZUN ZIBILEKO ASEGURUA

MILIOI BAT ETA BOSTEHUN MILA EURO (1.500.000,00)

ERAIKUNTZARAKO ARRISKU OROTARAKO ASEGURUA

- ESLEIPENAREN ZENBATEKO OSOAGATIK (BEZ barne)
- PROIEKTUAREN ALDAKETEK KONTRATUAREN ZENBATEKOAN ALDAKUNTZAREN BAT SORTZEN BADUTE, BERMATUTAKO KAPITALA PROPORZIO BERDINEAN ALDATUKO DA

BERMEAREN EPEA

BI (2) URTE obrak jasotzen diren unetik hasita

AZPIKOTRATAZIORAKO EHUNEKO MAXIMOA

% 70

BALDINTZA LINGUISTIKOAK KONTRATUA GAUZATZERAKOAN

Kontratu hau Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuaren 6. artikuluan, eta azaroaren 24ko 10/1982 Legean eta lege hori garatzen duen araudian ezartzen den **ofizialtasun linguistiko bikoitzeko** erregimenera lotuta dago. Lege hori euskararen erabilera normalizatzeko oinarritzkoa da.

KONTURAKO ABONUAK PRESTATZE-ERAGIKETENGATIK

EZ (Ikus 49. Klausula)

AURREIKUSITAKO KONTRATU-ALDAKETAK

Kontratuaren aldaketa aurreikusten da (SPKLTBaren 106. artikuluan)

Proiektua idazteko proiektu mota hauetan egiten den bezalako ikerketa geotekniko oso bat egin da, alegia, zuzena eta behar bestekoa. Ikerketa hori oinarri hartuta, lur-eremuaren arazoizko karakterizazio bat ezarri da, eta hortik aurrera lurren mugimenduak, mantentze eta egonkortze neurriak, eta egituren zimendatzeak sortu dira, lur-eremuaren ezaugarriak aurreikusi dena baino kaltegarriagoak izango liratekeen kasuetarako.

Hori dela eta, proiektua ondoko kontzeptuetan alda ahal izango litzatekeela uste da, ondoren aipatzen diren zenbateko maximoekin:

Indusketak, betegarriak, oinarri pikordunaren eta azalaren erregularizazioa:

Gehikuntza balioetsia: 316.400,90 € (BEZ SARTU GABE) Lehiaketaren oinarritzko aurrekontuaren gaineko % 4,57



ADMINISTRAZIO KONTSEILUAK
2014 UZT. 24
Aprobado por Consejo de Administración.
Hernani, 2014 UZT. 24
JUL. 24
Idazkariak,
GHK
Gipuzkoako
Hondakinen
Kudeaketa

BESTE BETEKIZUN BATZUK

ERAIKUNTZA ETA ERAISPEN HONDAKINAK EKOIZTU ETA KUDEATU. Obra gauzatzen duen pertsona fisikoak edo juridikoak otsailaren 1eko 105/2008 Errege Dekretuan aurreikusten diren egin beharrak bete beharko ditu, araudi hori ordeztzen edo osatzen ez duen besterik ez dagoen bitartean. Errege Dekretu horrek eraikuntza eta eraispén hondakinak ekoiztu eta kudeatzen ditu.

UKO EDO ATZERA EGITE KASUETAN LIZITATZAILEEI KONPENTSATU BEHARREKO ZENBATEKOA

UKO EGITEAREN kasuan: izandako gastuen kalte-ordaina emango da, gehienez 1.000,00 €-rekin
ATZERA EGITERAKOAN: izandako gastuen kalte-ordaina emango da, gehienez 1.000,00 €-rekin
(Ikus 18. 3.- Klausula)

GHK-ko Administrazio Kontseiluko akordioaren bidez onartua
HERNANI, 2014ko uztailearen 24a.

IDAZKARIA

Sin.: Xabier Loiola Aristi

(Handwritten signature)
Idazkaririk,

AURKIBIDEA

0.- SARRERA	8
I ATALA XEDAPEN OROKORRAK	8
1.- KONTRATUAREN XEDEA	8
2.- BALIO ZENBATETSIA, LIZITAZIOAREN OINARRIZKO AURREKONTUA ETA KONTRATUAREN PREZIOA	9
3.- FINANTZIAZIOA	9
4.- EGIKARITZE-EPEA	9
5.- PREZIOAK BERRAZTERTZEA	9
6.- KONTRATUAREN ERREGIMEN JURIDIKOA ETA JURISDIKZIO ESKUDUNA	9
II ATALA KONTRATAZIOA	10
7.- TXOSTEN MOTA ETA LIZITAZIO MODUA	10
8.- LIZITATZAILEAK	11
9.- BEHIN-BEHINEKO BERMEA	11
10.- PROPOSIZIOAK: DOKUMENTAZIOA ETA PROPOSAMENAK	12
11.- PROPOSAMENA	16
12.- FISKALITATEARI, INGURUMENAREN BABESARI, ENPLEGUARI ETA LAN-BALDINTZEI LOTUTAKO BETEBEHARREI BURUZKO INFORMAZIOA LORTZEA	16
13.- PROPOSAMENEN AURKEZPENA	17
14.- PROPOSAMENAK IREKITZEA ETA AZTERTZEA	17
15.- ESLEIPENERAKO IRIZPIDEAK	18
16.- ESKEINTZEN SAILKAPENA ETA KONTRATUA ESLEITZEKO PROPOSAMENA	19
17.- BEHIN BETIKO BERMEA	20
18.- ESLEIPENA	20
19.- ESLEIPEN-KOEFIZIENTEA OBRA ZIBILEAN	21
20.- KONTRATUAREN FORMALIZAZIOA	21
III ATALA KONTRATUA EGIKARITZEA	22
21.- OBREN ZUZENDARITZA	22
22.- KONTRATUAREN GAINBEGIRALE ARDURADUNA	22
23.- ZUINKETA-EGIAZTAPENA	23
24.- KONTRATU-EPEAK	23
25.- LAN-PROGRAMA	23
26.- OBRAREN KALITATEAREN ASEURAMENDU-PLANA (KAP)	24
27.- SEGURTASUN ETA OSASUN PLANA LANEAN	25
28.- KONTRATISTAREN BETEBEHAR NAGUSIAK	25
29.- KONTRATISTAREN BERARIAZKO BETEBEHARRAK	27
30.- KONTRATISTAREN BETEBEHARRAK LAN GAJETAN, GIZARTE-ASEGURANTZAN ETA LANEKO SEGURTASUN ETA OSASUNEAN	28
31.- ERAIKUNTZA ETA ERAISPEN HONDAKINEN INGURUKO BETEBEHARRAK	28
32.- BALDINTZA LINGUISTIKOAK KONTRATUA EGIKARITZERAKOAN	29
33.- EKIPOA ETA BALIABIDE PERTSONALAK	29
34.- MAKINERIA ETA BALIABIDE TEKNIKOAK	30
35.- ESKUESTEAK ETA BAIMENAK	30
36.- ENTSEGUAK ETA PROBAK	30
37.- AFEKTAZIOAK ZIRKULAZIOARI	30
38.- SEINALEZTAPENAK	31
39.- ERAGINPEKO ZERBITZUAK	31
40.- KALTE-GALERAK HIRUGARRENEI	31
41.- KALTEAK OBRETAN	32
42.- EPEAK ETA ATZERAPEN-ZIGORRAK BETETZEA	33
43.- BESTE ZIGOR BATZUK	34
44.- KONTRATUA LAGATZEA	34
45.- AZPIKONTRATAZIOA	34
46.- OBREN KONTRATUA ALDATZEA	36

47.-	OBRAK ETETEA.....	36
48.-	NEURKETAK, BALORAZIOA ETA KONTUKO ABONUAK.....	36
49.-	KONTURAKO ABONUAK PRESTATZE-ERAGIKETENGATIK.....	38
50.-	OBRAK HARTZEA ETA INSTALAZIOA MARTXAN JARTZEA.....	38
51.-	EPELEKO KONPOSTATZE-PLANTAREN ETA TRANSFERENTZIA-GUNEAREN OBRAK HARTZEKO PROZEDURA OBRAREN AZKEN ZIURTAGIRIA.....	38
52.-	BERME-EPEA.....	41
53.-	LIKIDAZIOA.....	41
54.-	KONTRATUA ETETEA.....	41
55.-	OBRAK ONDASUNEN ETA ESKUBIDEEN INBENTARIO OROKORREAN SARTZEA.....	42
56.-	KONTRAESAN ETA ZEHAZTUGABETASUN SUPOSIZIOAK.....	42
I	ERANSKINA PROPOSAMEN EREDUA.....	43
	1.1.1.1.....	43
	1.1.1.1.....	43
	1.1.1.1.....	43
II	ERANSKINA EGIKARITZE-EPEA BETETZEAREN INGURUKO KONPROMISO-EREDUA.....	44
III	ERANSKINA AITORPEN ARDURATSUAREN EREDUA.....	45
IV	ERANSKINA LOTETSITAKO ENPRESEN AITORPEN-EREDUA.....	46
V	ERANSKINA ERREGISTROAN PROPOSIZIOA EMATEKO EREDUA.....	47

0.- SARRERA

Administrazio Baldintza Partikularren Plegu honen (aurrerantzean ABPP) helburua da Epeleko (Bergara) Konpostatze Planta eta Transferentzia Gunea eraikitzeke obra-kontratuaren lizitazioaren administrazio-baldintza arautzaileak ezartzea.

Azpiegitura hori kokatuko den lur-eremua “Epeleko hondakin geldoen zaborteziaren alboko lur-eremuan hiri-hondakinen azpiegitura publikoa eraikitzeke Plan Berezia”-arekin loturik dago, zein Bergarako Udalak behin betiko onartu zuen 2013ko ekainaren 24an.

Konpostatze planta eta transferentzia-gunea horretarako prestatutako lekuan eraikiko da. Leku hori “Auzo-bideak aldatzeke eta Epeleko eremuko sarrerak egokitzeko lurren mugimenduak” proiektuan dago definituta, eta planta eta gune horren obrak gauzatuko dira GHK, SAUk 2013ko ekainaren 27an “Auzo-bideak aldatzeke eta Epeleko eremuko sarrerak egokitzeko lurren mugimenduak eraikitzeke proiektuaren obrak egiteke kontratua” esleitu ondoren.

Era berean, Bergarako Udalak 2013ko uztailaren 24an Saillkatutako Jarduera Lizentzia eman zuen, dagokion jarduera-proiektuaren arabera Epeleko konpostatze planta eta transferentzia-gunea eraikitzeke.

Gipuzkoako Hiri Hondakinen azpiegituren Lurralde Arloko Plana (aurrerantzean LAP) uztailaren 21eko 24/2009 Foru Dekretu bidez onartu zen. Helburu orokorra zen Gipuzkoan hiri-hondakinak etorkizunean kudeatu ahal izateke beharrezke azpiegiturak kokatzeko aurreikuspena egitea, Europako, Estatuko eta autonomia erkidegoko araudietan ezarritako iraukotasun irizpideei jarraiki. LApek Gipuzkoan aurreikusten diren hainbat azpiegitura ezartzeko kokapenak zehazten ditu, besteak beste Epeleko Konpostatze Planta eta Transferentzia Gunea Bergarako udalerrian.

Gipuzkoako Hondakinen Kudeaketa da eskumena duen erakundea Lurralde Arloko Planean aurreikusitako azpiegiturak eraikitzeke. Gipuzkoako Hondakinen Kudeaketa Batzordeak 2014ko ekainaren 19an adostu du erakundean bertan, alegia **GIPUZKOAKO HONDAKINEN KUDEAKETA, SAUn** (aurrerantzean GHKn), Epeleko (Bergara) Konpostatze Planta eraikitzeke eta ustiatzeke kudeaketa burutzea; planta horretan tratatuko da etxeetan zein sortzaile handietan selektiboki jasotako materia organiko biodegradagarria. Era berean, Batzorde horrek adostu du, baita ere, Transferentzia Gune bat ustiatzea toki berean.

I ATALA XEDAPEN OROKORRAK

1.- KONTRATUAREN XEDEA

1.- Kontratuaren xede izango da Iñigo Irigoyen, Eneka Alonso eta Jon Roteta jaunek 2014ko uztailaren 24an idatzitako “Ezaugarrien koadroa”-n aipatzen den proiektuaren obrak egikaritzea, eta dagokionean, azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren 1go Liburuaren V. Tituluan eta 219 eta 234 artikuluetan aurreikusten diren suposizioetan bidera daitezkeen aldaketak egitea. Legegintzako Errege Dekretu horren bidez, Sektore Publikoko Kontratuaren Legearen Testu Bategina (aurrerantzean SPKLTB) onartzen da. Aldaketak “Ezaugarrien koadroa”-n aurreikusten eta deskribatzen dira.

2.- Kontratu honekin Proiektuan deskribatzen diren beharrak gauzatuko dira, bertan deskribatzen eta planoetan definitzen diren obrak egikaritzuz, Xedapen Tekniko Partikularren Pleguan jasotzen diren ezaugarriekin eta kalitatearekin.

3.- Jardueren araberrako Produktuen Saillkapen Estatistikoa 2008ren (JPS 2008) nomenklaturari dagokion kodifikazioa plegu honen karatulan agertzen da.

4.- Kontratuen Hiztegi Komunaren (KHK) nomenklaturari dagokion kodifikazioa plegu honen karatulan agertuko da.



2.- BALIO ZENBATETSIA, LIZITAZIOAREN OINARRIZKO AURREKONTUA ETA KONTRATUAREN PREZIOA

- 1.- Kontratuaren balio zenbatetsia, SPKLTBren 88. artikuluari jarraiki kalkulatu, eta plegu honen hasieran agertzen den "Ezaugarrien koadroan" jasotzen dena, da kontuan hartu dena kontratu honi ezarri ahal zaion esleipen prozedura eta publikitate aukeratzeko.
- 2.- Kontratuaren lizitaziorako oinarritzko aurrekontuaren kopurua plegu honen hasieran agertzen den "ezaugarrien koadroan" jasotakoa da (BEZa sartu gabe).
- 3.- Eskaintza guztiak aparte adierazi beharko dute kontratuaren prezio garbiari (BEZik gabe) dagokion kopurua, baita BEZari dagokion kopurua ere, horrela dagokionean. Formulaturako eskaintza ekonomikoen zenbateko garbiek (BEZik gabe) ezin izango dute kontratuaren lizitaziorako oinarritzko aurrekontua gainditu.
- 4.- Aukeratutako proposamena onartu ondoren sortuko dira kontratuaren prezioa zein obrak egikaritzen diren bitartean indarrean egongo diren aleko prezioak. BEZa kontratuaren prezioaren barnean egongo da, baita ezarri beharreko beste edozein zerga mota ere, horrela badagokio, zein plegu honetan aurreikusten diren betebeharrak betetzearen ondorioz esleipendunarentzako sor daitezkeen beste gastu guztiak ere. Pleguan jasotako betebeharren ondorioz esleipendunarentzako sor daitezkeen gastu guztiak, eta kontratuan ezartzekoak diren eta lizitazioaren xede den proiektuaren egikaritze-kostu zuzenen eta zeharkakoen artean agertzen ez diren gainerako xedapenak Egituraren Gastu Orokorren ehunekoan jasota egongo dira.

3.- FINANTZIAZIOA

GHK, SAUK kreditu egokia eta nahikoa dauka kontratutik eratortzen diren betebeharrak finantzatzeko.

4.- EGIKARITZE-EPEA

- 1.- Lana guztiz egikaritzeko gehiengo epea plegu honen hasieran agertzen den "kontratuaren ezaugarrien koadroan" ezarriko da.
- 2.- Egikaritze-epe partzialak lan-programa onartzen denean finkatuko dira, horrela dagokionean, plegu honen 25. klausulan ezarritakoaren arabera.
- 3.- Kontratuaren epea luzagarria da SPKLTBren 212. eta 213. artikuluetan, eta urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuak onartutako Herri Administrazioen Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorreko (aurrerantzean HAKLEO) 98. eta 100. artikuluetan ezarritako suposizioen eta baldintzen arabera. Edozein kasutan ere, luzapena berariaz adostu behar da.

5.- PREZIOAK BERRAZTERTZEA

Prezioak berraztertzea desagokoa da.

6.- KONTRATUAREN ERREGIMEN JURIDIKOA ETA JURISDIKZIO ESKUDUNA

Kontratu honen izaera pribatua da, azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren 20.1 artikulua arabera, zeinaren bidez Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bategina (aurrerantzean SPKLTB) onartzen

Idazkaria



den. Kontratu honek Administrazio Klausula Partikularren Plegu (aurrerantzean AKPP edo Plegua) honetan zein gainerako kontratuzko dokumentuetan ezarritakoa beteko du, klausula honetan ezarritako baldintzen arabera.

Kontratu hau erregulazio bateratura atxikirik dagoenez, **prestaketari eta esleipenari** dagokionez, SPKLTBn eta horren garapeneko xedapenetan ezarritakoa beteko du, eta gehigarri bezala zuzenbide pribatuko arauak beteko ditu. Izan ere, GHK sektore publikoko erakunde bat da, baina Administrazio Publikoaren baldintzarik ez du betetzen. Administrazioarekiko auzien jurisdikzioak izango du eskumena kontratu honen prestakuntzari eta esleipenari dagozkion auzipeko kontuak ebazteko.

Dena den, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri baino lehen, eta kontuan izanik aurreko kontuen kontra administrazioarekiko errekurtsu arrunta jartzea bidegabea dela, ondoko hauei SPKLTBren 40. artikuluan araututako errekurtsu berezia ezar daiteke:

- a) Kontratazioa zuzenduko duten baldintzak ezarriko duten lizitazio iragarkiei, pleguei eta kontratuzko dokumentuei.
- b) Esleipen prozeduran onartutako izapide-egintzei, beti ere azken horiek esleipenaren inguruko erabakiak zuzenean edo zeharka hartzen badituzte, prozedura jarraitzeko ezintasuna dutela zehazten badute, edo eskubide edo interes legitimoak defentsa-gabezia edo kalte konponezina sortzen badiete. Lizitatuzaileak baztertzea adosten duen Kontratazio Mahaiaren egintzak prozedurarekin jarraitzeko ezintasuna zehazten duten izapide egintzak izango dira.
- c) Botere adjudikatuzaileek onartutako esleipen akordioak.

1.- Errekurtsoa bideratzeko erabakien ondorioz eskubide edo interes legitimoetan kalteak edo eraginak jasan behar izan dituen pertsona fisiko edo juridiko orok jarri ahal izango du kontratazio gaiei dagokien errekurtsu berezia.

2.- SPKLTBren 43. artikulua ezartzen duenari jarraiki, aurreko paragrafoan ezarritakoaren arabera horretarako legitimoak diren pertsona fisikoek edo juridikoek behin-behineko neurriak hartzea eska diezaiokete errekurtsu ebazteko organo eskudunari, prozeduren arau-haustea zuzentzeko edo kaltetutako interesei kalte gehiagorik egitea saihesteko, dagokion kontratuaren esleipen prozedura eteteko edo eten arazteko neurriak barne, edo kontratazio organoak hartutako edozein erabaki egikaritzeko. Eskaera hori kontratazio gaietan errekurtsu berezia jarri baino lehen jarri ahal izango da.

Kontratuaren **ondorioei eta iraungipenari** dagokionez, kontratuak Klausulen Plegu Ekonomiko Administrazio hau, Xedapen Teknikoen Plegua, eta GHKren Kontrataziorako Barne Jarraibideak beteko ditu, eta horietan aurreikusten ez diren kasuetan, zuzenbide pribatuaren arauak.


Gainera, SPKLTBn eta Herri Administrazioen Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorra (aurrerantzean HAKLEO) osorik bete beharko dira Plegu honek araudi horiek berariaz aipatzen dituen kasuetan.

Kontratuaren edozein baldintza, edota adostutakoa egikaritzera ezarri daitezkeen beste edozein kontratuzko dokumentu ez ezagutzeak ez du esan nahiko esleipendunak horiek bete behar ez dituenik.

Jurisdikzio-ordena Zibilak izango du eskumena kontratu honen ondorioei, betetzeari eta iraungipenari lotuta alderdien artean ager daitezkeen eztabaidak ebazteko.

II ATALA KONTRATAZIOA

7.- TXOSTEN MOTA ETA LIZITAZIO MODUA



Kontratazio txostenari TRAMITAZIO ARRUNTA ezarriko zaio, eta kontratuaren lizitazioa eta esleipena SPKLTBren 157. eta 161. artikuluetan eta HAKLEOri dagozkion artikuluetan aurreikusitako eta araututako PROZEDURA IREKIAREN bidez egingo dira.

8.- LIZITATZAILEAK

1.- Jarduteko gaitasun osoa duten, kontratatzeko debekurik ez duten, eta kaudimen ekonomiko, finantzario eta teknikoa edo profesionala ziurtatzen duten, edo SPKLTBk horrela eskatzen duen kasuetan, behar bezala sailkatuta dauden pertsona fisiko edo juridiko, espainiar edo atzerritarrek egin ahal izango dute kontratua GIPUZKOAKO HONDAKINEN KUDEAKETA, SAUREkin (aurrerantzean GHK).

Proposamenak aurkezteko epea ixten den egunean, SPKLTBren 60. artikuluan ezarritakoari jarraiki, kontratatzea debekatzeko arrazoi batean ere ez dira erori behar izango lizitatzailleak. Kontratuaren esleipena egiten denean ere ez dira egon behar egoera horretan.

Era berean, enpresariak kontratuaren xedea osatzen duten jarduera edo zerbitzua egiteko eska daitekeen enpresa-gaikuntza edo gaikuntza profesionala izan beharko dute.

2.- Estatutuen edo sortze-arauen arabera xedeak, helburua edo jarduera eremua berezkoak dituen, eta horiek dagokion kontratuaren prestazioak jasotzen dituzten kontratuen esleipendunak izan ahal dira bakarrik pertsona juridikoak.

3.- Era berean, GHK-k helburu horretarako eta aldi baterako sortzen diren enpresarien elkarteekin kontratatu dezake, nahiz eta kontratuaren esleipena elkarte horren alde egin arte elkarte horiek eskritura publikoan formalizatu beharrik ez duten.

4.- SPKLTBren 56.2 artikuluan ezarritakoaren arabera, plegu honen xede den kontratua ezin izango da lizitazioaren xede diren obren zaintza, gainbegiratzea, kontrola eta zuzendaritza egin behar duten zerbitzu-kontratuen enpresa esleipendun berdinei esleitu, ezta obra horiei lotetsitako enpresei ere. Azkenengo horiek Merkataritzako Kodearen 42. artikuluan aurreikusitako suposizioetako batean daudenak izango lirateke.

5.- Ezin izango dira lizitazioan lehiatu kontratuaren zehaztapan teknikoak sortzen parte hartu duten enpresak, parte-hartze horrek lehia libreari murrizketak jarri ahal baitizkio edo tratu pribilegiatua izan baitezake gainerako enpresa lizitatzaileren aurrean.

6.- Kontratuaren xede diren obren ezaugarriak kontuan izanik, enpresei edo enpresa lizitatzaileren taldeei eska daitekeen sailkapen minimoa izango da plegu honen hasieran agertzen den "ezaugarrien koadroa"-n ezarri dena.

9.- BEHIN-BEHINEKO BERMEA

1.- Lizitazioan parte hartzeko, eta plegu honen hasieran agertzen den "ezaugarrien koadroa"-n ezartzen denari jarraiki beharrezkoa denean, eta bertan adierazten den zenbatekoa jarri ondoren, enpresa lizitatzailleak beren jarrerak bermatu beharko dituzte kontratazio organoaren arabera behin-behineko bermea eratuz SPKLTBren 103. artikuluan aurreikusitako edozein modutan eta araudiaren arabera ezarritako baldintzetan.

2.- Kontratu honen behin-behineko bermearen helburua da lizitazio prozeduran zehar eskaintzak ezabatzeko lehiakortasunaren kontrako akordio posibleak sortzeaz ohartaraztea, eta horrela, kolusioak saihestea.

3.- Enpresen behin-behineko elkarteek behin-behineko bermea eratu beharko dute HAKLEOaren 61.1 artikuluan ezarritako modura.

4.- Lizitatzaileren batek esleipena baino lehen arrazoirik gabe bere proposamena baztertzeko badu, edo esleipendunak behin betiko bermea eratzen ez badu, edo esleipendunari egotzi daitezkeen arrazoiengatik kontratua epe barruan ezin bada gauzatu, behin-behineko bermea konfiskatuko da.

10.- PROPOSIZIOAK: DOKUMENTAZIOA ETA PROPOSAMENAK

1.- Proposizioak ezkutukoak izango dira, eta hori horrela bermatzeko beharrezko bitartekoak erabiliko dira lizitazio publikoa egiten den uneraino. Proposizioa aurkezteak esan nahi du enpresariak Administrazio Klausula Partikularren Pleguan eta Xedapen Teknikoen Agirian aurreikusten den guztia baldintzarik gabe onartzen duela, salbuespen eta erresebarik gabe.

2.- Lizitatzailerako proposizio bat baino ezin izango du aurkeztu. Era berean, proposizioa bakarka aurkeztu badu ezin izango du beste batzuekin behin-behineko elkartean proposamenik sinatu, edo lizitazioan parte hartzen duten behin-behineko elkarte bat baino gehiagotan agertu. Arau horiek hausteak lizitatzailerako hark sinatutako proposizio guztiak baztertzeari suposatuko du.

3.- Pleguan eta dokumentazio osagarriaren inguruan eskatzen den beste edozein informazio gehigarri GHK, SAUko Erregistroan aurkeztu behar izango da, eta eskaintzak aurkezteko epea bukatu baino gutxienez 10 egun lehenago egin behar izango da.

4.- Proposizioak hiru gutun-azaletan aurkeztuko dira, aurrerago xehatzen den modura, eta ondoren adierazten diren dokumentuak edukiko dituzte.

Gutun-azal bakoitzaren barruan **dagokion edukia jasoko da aparteko orri batean**, zenbakietan adierazita (HAKLEOko 80.1 artikulua).

1go GUTUN-AZALA: GAITASUNA ETA KAUDIMENA

1.- 1go gutun-azalean ondokoak jasoko dira:

a) **Enpresariaren, eta dagokionean, bere ordezkariaren jarduteko gaitasuna egiaztatzen duten dokumentuak,** HAKLEOko 21. artikuluan aurreikusitakoaren arabera:

Jarduteko gaitasuna egiaztatuko da:

- Enpresa pertsona juridikoa izango balitz, Merkataritza Erregistroan erregistratuta dagoen eratzeko edo aldaketa eskritura aurkeztuz, azken horri ezartzen zaion merkataritza-legearen arabera baldintza hori betetzea eskatzen denean. Baldintza hori eskatzen ez denean, eskrituraren edo eraketaren dokumentuaren, estatutuen edo sortze-egintzaren bidez egiaztatuko da jarduteko gaitasuna, non jasota agertu behar diren enpresaren jarduerari arautzen dituzten arauak, dagokion Erregistro ofizialean erregistratuta egon behar direnak.
- Enpresa banakakoa izango balitz, Nortasun Agiri Nazionala aurkeztuko da, edo horren ordezkariaren beste dokumentu bat.
- Espainiako ez diren Europako Erkidegoko estatu kideen edo Europako Esparru Ekonomikoko Akordioa sinatu zuten estatuaren enpresen jarduteko gaitasuna HAKLEOaren 9. artikuluan ezarritakoaren arabera egiaztatuko da.
- Gainerako atzerriko enpresen jarduteko gaitasuna HAKLEOaren 10. artikuluan ezarritakoaren arabera egiaztatuko da. Enpresa horiek sukurtsal bat izan beharko dute irekita Espainian, beraien eragiketarako egiteko ahaldukin edo ordezkariarekin, eta azken horiek Merkataritza Erregistroan erregistratuta egon behar dira.
- Beste baten izenean agertzen edo proposamenak sinatzen dituztenek, NANaren kopia edo horren ordezkariaren dokumentua aurkeztuko dute, baita horretarako duten ahalordea nahikoa dela egiaztatzen duen dokumentua ere. Enpresa pertsona juridikoa izango balitz, ahalordea Merkataritza Erregistroan erregistratuta agertu beharko da. Hala ere, ahalordea ekimen zehatz baterako bada, ez da Merkataritza

Erregistroan izena eman behar izango, Merkataritza Erregistroko Erregelamenduaren 94.1.5 artikuluan xedatutakoaren arabera.

b) **Berriarazo aitorpen arduratsua, III ERANSKINA** bezala gehitu den ereduaren arabera. Aitorpen horretan egiaztatu behar da kontratatzea debekatzea ekarriko lukeen edozein zirkunstantzian erori gabe dagoela, SPKLTBren 60. artikulua ezartzen duenaren arabera, eta bereziki artikulua horren 1go atalaren c) letrako edukia arabera, laneko segurtasun eta osasun gaitan arau-hauste oso larria eginagatik zigor irmorik ez duela jaso; HAKLEOren 13. eta 14. artikuluek aurreikusten duten irismenean eta moduan ogasun eta gizarte-segurantzako betebeharrak egunean daramatzala; eta Jarduera Ekonomikoko Zergan alta emanda dagoela kontratuaren xedari dagokion epigrafean, esleipena jasoko duen enpresariak baldintza horren ziurtagiria esleipena baino lehen aurkeztu beharri kalterik egin gabe.

c) **Fax zenbaki bat edota posta elektronikoko helbide bat komunikazioak egin ahal izateko.**

d) Enpresaren **sailkapena** egiaztatzen duten **dokumentuak**, plegu honen buruan dagoen "ezaugarrien koadroa"-n ezarritakoaren arabera. Espainiakoak ez diren Europako Erkidegoko estatu kideetako enpresari kasuan, nahikoa izango da beren kaudimen ekonomikoa eta finantzarioa, teknikoa edo profesionala egiaztatzea, SPKLTBren 75. eta 76. artikuluen arabera; eta Europar Batasuneko Estatu kideek SPKLTBren 84. artikuluan adierazitako baldintzen arabera ezarritako kontratatze baimena duten enpresari ofizialen zerrendetan izena ematea. Espainiakoak ez diren enpresari eskatutako gutxiengo kaudimena Espainiakoak direnei eskatutako sailkapenaren baliokidea izango da.

Enpresa sailkatzeke egongo balitz, dagokion eskaera aurkeztu izanaren egiaztagiria gehitu beharko du. Hala ere, ondoren, plegu honen 14. klausulak aipatzen duen dokumentazioan akatsak edo omisioak zuzentzeko epean eskatutako sailkapena lortu izana egiaztatu beharko du.

e) **Lizitzaileak azpikontratatu nahi duen kontratuaren zatiari dagokion aitorpena.** SPKLTBren 63. artikuluan ezarritakoari kalterik egin gabe, plegu honen karatulan azpikontratatzeko aukera ikusten denean, lizitzaileek adierazi beharko dute, beti ere, kontratuaren zati bat azpikontratatzeko aurreikusten duten edo ez, eta horrela dagokionean, kopurua eta enpresaren izena edo profila adierazi beharko dute, lana jasoko duten azpikontratisten kaudimen profesionala edo teknikoaren baldintzen arabera.

f) **Lizitzaileen izaera konfidentzialeko dokumentuak eta datuak.** SPKLTBren 140. artikuluan aurreikusten denaren arabera, enpresa lizitzaileek adierazi beharko dute, horrela dagokionean, adierazpen osagarri baten bidez, zeintzuk dokumentu administratibo eta tekniko eta zeintzuk aurkeztutako datu diren, beraien iritziz, konfidentzialtzat hartu beharrekoak. Egoera hori argi eta garbi adierazi beharko da, gainera, (gainprimatuta, edo marjinan, edo beste edozein modutara) konfidentzialtzat hartu den dokumentuan bertan. Enpresa lizitzaileak aurkeztutako dokumentuak eta datuak konfidentzialak direla esan daiteke, horiek hirugarrengoei zabaltzeak beren legezko merkataritza interesen kontra joatea suposatuko balu, sektoreko enpresen artean lehiakortasun leialari kaltea egingo balio, edo Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan ezarritako debekuen artean jasota badaude. Aitorpen hori gehitzen ez bada, kontuan hartuko da aurkeztutako dokumentu edo datu guztiek edo horietako bateren batek, beren ezaugarrien arabera, ez dutela izaera konfidentzialik.

g) Proposizioa **aldi baterako enpresa-elkarte** batengatik egiten denean, proposizioa osatzen dutenetako bakoitzak bere gaitasuna eta kaudimena –edo sailkapena, horrela dagokionean– egiaztatu beharko du, obren enpresa kontratatzaile gisa. Kasu horretan, eta horrela dagokionean, proposizioaren partaideetako bakoitzarentzat egiaztatutako ezaugarriak, edo ABEEko kideen banakako sailkapenak pilatuko dira, plegu honetan eskatzen den kaudimen/sailkapen osoa egiaztatu ahal izateko. Era berean, enpresa horien guztien legezko ordezkariak sinatutako dokumentu bat aurkeztu beharko da. Dokumentu horretan jarri beharko dira sinatzen duten enpresari izenak eta baldintzak, esleipendun izanez gero aldi baterako enpresa-elkartea formalki osatzeko konpromisoa hartzen duten agiria, eta elkarte horretan bakoitzak duen partaidetza, baita kontratuak irauten duen denboran GHK, SAUren aurrean enpresa horien guztien ordezkarietza osoa izango duen pertsonaren izendapena ere.

Sailkapena eskatzen den kasuetarako, eta aldi baterako elkartean nazio-enpresariak, Europar Batasuneko Estatu kide batekoak ez diren atzerritarrek, eta Europar Batasuneko Estatu kide batekoak diren atzerritarrek elkartzen badira, lehen talde bietakoek sailkapena egiaztatu beharko dute, eta azkenek kaudimen ekonomikoa eta finantzarioa, teknikoa edo profesionala.



h) **Behin-behineko bermea egiaztatzen duen frogagiria**, plegu honen “ezaugarrien koadroa”-n horrela eskatzen denean, bertan ezartzen den zenbatekoarekin. Abal edo kauzio-asegurua kontratu bezala eratu izan balitz, ez da GHK, SAUren altxortegian gorde behar izango.

Aldi bateko enpresarien elkarleen kasuan, behin-behineko bermea eratu ahal izango da elkartean parte hartzen duten enpresa baten edo batzuen bidez, beti ere multzoan kontratazio organoak eskatutako zenbatekoa lortzen bada eta aldi baterako elkarteko partaide guztiei solidarioki bermea ematen bazaia.

i) **Aitorpena**, zeinean jasoko den lizitatuzailea ez dagoela inolako **enpresen elkarloturen** suposizioen artean. Lotura horiek Merkataritzaren Kodearen 42.1 artikulua suposizioetako batean daudenak dira. **Lizitazio berean lehiatuko diren talde bereko enpresen kasuan, kontratuaren esleipenerako banakako proposizioak aurkezten dituzten enpresen zerrenda**, nahiz eta lizitatuzaileak parte hartzen duen enpresa-taldean parte hartu. Aitorpen hori plegu honen IV ERANSKINean agertzen den ereduaren arabera izan behar da.

j) **Atzerriko enpresek**: Espainiako edozein mailatako epaitegi eta auzitegien jurisdikzioaren menpe jartzen direla jasotzen duen aitorpena, kontratuaren ondorioz zuzenean edo zeharka sor daitezkeen gorabehera ororentzako, eta dagokionean, lizitatuzaileari egokitu litzaiokeen atzerriko jurisdikzio-foruari uko eginez.

Gainera, erkidegoko atzerriko enpresek Espainian sukurtsal bat irekita dutela egiaztatu beharko dute, beraien eragiketak egiteko ahaldukin edo ordezkariekin. Azken horiek Merkataritza Erregistroan erregistratuta egon behar dira.

Enpresa horiek aurkezten duten dokumentazioa gaztelaniara edo euskarara ofizialki itzulita egongo da, HAKLEOren 23. artikuluan ezarritakoaren arabera.

2.- 1go gutun-azalean jasotzen den dokumentazio guzti hori jatorrizkoa izan behar da, edo egiazkoa bezalako balioa duen kopia edo gai horretan indarrean dagoen legediaren arabera konpultsatuta egongo da.

3.- Kontratisten Erregistro Ofizialari eta sailkapenaren ezarpenari buruzko otsailaren 3ko 12/1998 Dekretuak araututako, eta Kontratisten Erregistro Ofizialaren funtzionamenduaren arauak ezartzen dituen 1998ko otsailaren 4ko Ordenak garatutako Kontratisten Erregistroan erregistratuta dauden lizitatuzaileak erregistroko letradu arduradunak ziurtatutako ziurtagiri originala edo konpultsatutako kopia aurkeztu ahal izango dute, a) atalean, eta dagokionean, d) atalean eskatzen den dokumentazioaren orde. Era berean, lehen aipatutako dokumentazioaren orde erkidegoko sailkapen-ziurtagiria aurkeztu ahal izango da, baita Gipuzkoako Foru Aldundiko Kontu-hartzailera eta Auditoretza Zerbitzuak igorritako kontratatze gaitasuna egiaztatzen duen ziurtagiria ere, martxoaren 13ko 24/2001 Foru Dekretuan ezarritakoaren arabera, non ezartzen den Gipuzkoako Foru Aldundiarekin kontratua egiteko gaitasuna ziurtatzeko prozedura.

Aurreko 1go ataleko a) edota d) letretan aipatutako baldintzen egiaztapena han aipatzen diren edozein ziurtagiriren bidez egiten denean, lizitatuzaileak –III. ERANSKINAREN arabera– aitorpen arduratsua egin beharko du, non adieraziko duen dagokion ziurtagirian jasotzen diren baldintzak ez direla aldatu.

2. GUTUN-AZALA: KALITATE-MEMORIA


2. gutun-azalean ondokoak jasoko dira:

a) PROPOSAMEN EDO MEMORIA tekniko edo obraren egikaritze-azterketa bat, lan hori nola egin nahi den azalduko eta justifikatuko duena.

Memorian ondoko ezaugarriak zehaztu beharko dira, berariaz:

- Proiektua eta obra oro har ezagutzea.....
- Instalazioak biooxidazio tuneletan (itxituretan barne).....
- Aireztatze eta lixibiatuen bilketa sistemak.....
- Lixibiatuekin eta urarekin ureztatzeko sistemak.....

Idazkariak



- o Usaina kentzeko instalazioa.....
- o Konpostatze prozesuaren instalazioa eta kontrol-sistema.....

Proposamen teknikoaren konpostatze prozesuaren teknologiaren eta instalazioen definizioari eragiten dieten ezaugarrietan oinarrituko da soilik. GHK-k Egikaritze Proiektuaren Memoriaren 8. Eranskinean definitutako konpostatze prozesu baten alde jo du, eta dokumentu hori konpostatze instalazioak zehazteko oinarri bezala erabiliko da.

Proposatutako ekipoen, potentzien, materialen, prestazioen, etekinen, emarien, mailen, eta abarren zehaztapen teknikoak gehituko dira.

b) Epea eta plangintza

Egikaritze-epari dagokionez, Plegu honen II ERANSKINean agertzen den ereduaren bete behar da hertsiki proposamen bat aurkezteko. Eredu horri jarraiki, lanen egikaritze-epea esleituko da (Ikus 11. Klausula).

Obrak egikaritzeko epe maximoa 6 hilekoa izango da, kontratua sinatzen den unetik zenbatzen hasita.

Lehiaketan parte hartzeko obren egikaritze-epea frogatu beharko da.

Plangintzak ondoko ezaugarriak garatu beharko ditu:

- 1.- Gantt-en diagrama
- 2.- Ibilbide kritikoen analisia
- 3.- Baliabideak esleitzea
- 4.- Baliabideen eta erosketen hileko kostua
- 5.- Kutzako fluxua

Gainera, **MEMORIA** bat gehitu beharko da ondoko edukia zehaztuz:

- Obrari esleitutako **langileak** eta laguntza teknikoak: Atal honetan ondokoa jasoko da:
 - Obrak egiten parte hartuko duten langile teknikoaren izen-zerrenda. Beraien prestakuntza eta lanbide-erperientzia egiaztatzen duten dokumentazioa gehitu behar da, arduraldi osoa, partziala edo aholkularitza-arduraldia duen zehaztuz, baita obrak egikaritzen diren bitartean duten bizilekua ere.
 - Nolanahi ere, bete-beteko arduraldian Ordezkaritza Kontratista bezala jardungo duen pertsona izendatuko da. Izendapen hori Bide, Ubide eta Portuetako Ingeniari bati egin behar zaio, nahitaez, eta kontratua egikaritzen den bitartean obrak egiten ari diren tokiaren alboan bizi beharko da. Egin behar diren obren mailako esperientzia izan beharko du, eta obra-burua izango da.

Atzerriko enpresen kasuan, titulu baliokidea izango du.

- Obrei esleitutako **makineria eta bitarteko osagarriak**. Atal honetan ondokoa jasoko da:
 - Obrak egikaritzeko erabiliko diren makineria, bitarteko osagarri, instalazio eta ekipoen zerrenda. Horien marka, eredu, potentzia eta gaitasuna adierazi behar da, eta horietatik egun zer daukaten eta esleipena jasoz gero zer erostea edo kontratatzea aurreikusten den jakinarazi behar da.
 - Erabili beharreko bitartekoaren zerrendan zein obra motara atxikiko diren zehaztu beharko da. Aurkeztutako Lanen programari jarraiki, obran langileak lagatzeko asteko batez besteko etekinak eta egunen aurreikuspena kendu beharko dira.

3. GUTUN-AZALA: PROPOSAMEN EKONOMIKOA

1.- **PROPOSAMEN EKONOMIKOAK** plegu honen Igo **ERANSKIN bezala agertzen den ereduari jarraitu beharko dio hertsiki**. Eredu horri jarraituz, bertan agertzen diren aitortpenak eta adierazpenak jasoko dira, baita eskaintza ekonomikoari dagokion zenbatekoa ere. Proposamen hau omisiorik, akatsik edo zirriborrorik gabe aurkeztuko da, alegia, eskaintzak kontuan hartzeko kontratazio organoak funtsezkotzat jotzen duen informazioa argi eta garbi ikusteko moduan, eta aurrekorik egongo balitz, proposamena baztertu egin ahal izango da.

Zenbakietan eta hitzetan idatzitako zenbatekoen artean alderik egongo balitz, hitzetan idatzitakoak gailenduko du.

2.- Proposamena enpresa-talde batek egiten duenean, talde hori osatzen duten enpresa guztiek proposamena sinatu beharko dute zuzenean edo ordezkari baten bitartez.

3.- Dokumentu honetan esleitutako zenbatekoan obrak kontratatzeagatik eta egikaritzeagatik sortutako edo sortuko diren gastu guztiak sartuta daudela ulertuko da, ondoko hauek, zehazki:

- Aldizkarian edo Aldizkari Ofizialetan iragarpena argitaratzearen gastuak, indarrean dauden xedapenen edo kontratuaren formalizazioaren arabera, horrela dagokionean. Esleipendunak aipatu argitalpenagatik ordaindu beharreko zenbateko maximoa plegu honen hasieran dagoen "ezaugarrien koadroa"-n ezartzen da.
- Esleipendunak kontratatutako zerbitzua gauzatzeko egin beharreko gastuak, orokorrak, finantzarioak, aseguruena, tasak, fidantzak, saiakuntzak, garraioa eta desplazamenduak, bere kargura dauden teknikarien eta laguntzaileen ordainsariak eta dietak, eta plegu honetan aurreikusten diren beste gastuak.
- Edozein motatako zerga, BEZ eta kontratuak irauten duten bitartean ezarri edo alda daitekeen beste edozein ere barne, horrela dagokionean. **Horretarako, aplikatu beharreko balio erantsiaren zergaren zenbatekoa aparteko sail bezala agertuko da**, eta zerga-oinarria, ezarri beharreko zerga mota, eta zergaren zenbatekoa eta zerga-oinarriaren eta zergaren zenbatekoaren batuketa bereizita adierazi beharko dira.

Kontzeptu horietako batek ere ez du kontzeptu edo partida independentea bezalako ondorioz izango.

11.- PROPOSAMENA

Lizitatuzaileek behin betiko onartutako Proiektuari bakarrik eta literalki dagokion proposamena egin beharko dute nahitaez, eta plegu honen hasieran agertzen den "ezaugarrien koadroa"-n jasotzen den egikaritze-epe eta prezio berdinean edo txikiagoarekin, eta proposamen horrek aurkeztu duten lan-programan agertzen denarekin egin beharko du bat, zehatz-mehatz.

12.- FISKALITATEARI, INGURUMENAREN BABESARI, ENPLEGUARI ETA LAN-BALDINTZEI LOTUTAKO BETEBEHARREI BURUZKO INFORMAZIOA LORTZEA

1.- SPKLTBren 119. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, lizitatuzaileek fiskalitateari, ingurumena babesteari eta enpleguaren babesaren, lan-baldintzak eta lan-arriskuen prebentzioaren gaietan indarrean dauden xedapenekin lotutako betekizunei buruzko informazioa lor dezaten –kontratua egikaritzen den bitartean emandako zerbitzuei ezarriko baitzaie horiek–, ondoko erakundeak aipatzen dira:

- Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Saileko Ogasuneko Zuzendaritza Nagusia.

- Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Saileko Ingurumen eta Obra Hidraulikoen Zuzendaritza Nagusia.
- Eusko Jaurlaritzako (Gipuzkoako Lurralde-bulegoa) Enplegua eta Gizarte Gaietarako Departamentua.

2.- Aurreko paragrafoan adierazitakoaren arabera, lizitatzailleek, Igo ERANSKINAREN arabera, berariaz jakinarazi beharko dute enplegua babesteko, lan-baldintzen eta lan-arriskuen prebentzio, eta ingurumena babesteko gaietan indarrean dauden xedapenetatik eratorritako betebeharrak kontuan izan dituztela beraien eskaintzak egiterakoan.

13.- PROPOSAMENEN AURKEZPENA

1.- Aipatutako gutun-azalak plegu honen V. ERANSKIN bezala agertzen den proposamenak aurkezteko ereduarekin batera aurkeztu beharko dira deialdiko iragarpenetan finkatutako lekuan eta epean. Iragarpen horiek dagozkion egunkarietan edo egunkari ofizialetan eta kontratatzailearen profilean argitaratuko dira (<http://www.ghkinfo.com>).

2.- Lizitatzailleak proposamena postaz bidaltzen badu, **Correosko bulegoan bidaltzerakoan jarritako epea frogatu beharko du, eta Kontratazio Organoari** telex, telefax edo telegrama bidez **egunean bertan jakinarazi beharko dio eskaintza bidali duela**, HAKLEOren 80.4 artikuluan xedatutakoaren arabera. Posta elektronikoz ere egin ahal izango du jakinarazpena, baina hori onargarria izateko frogatu behar da komunikazio horiek igorri eta hartu direla, baita data eta komunikazioen eduki osoa ere, eta igorlea eta hartzailea era sinesgarrian identifikatu behar dira. Horretarako, inprimatutako kopia bat gehituko zaio txostenari. **Baldintza bi horiek betetzen ez badira, ez da dokumentaziorik onartuko kontratazio organoak iragarpenean adierazitako epearen azken egunean eta orduan baino beranduago jasotzen badu.** Hala ere, aipatu dataren hurrengo hamar egun naturalak igaro ondoren oraindik dokumentaziorik ez bada jaso, ez da inola ere onartuko.

3.- Gutun-azalak itxita eta lizitatzailleak edo ordeztzen duen pertsonak sinatuta aurkeztuko dira. Izena eta abizenak edo enpresa lizitatzaillearen izen soziala, telefono eta fax zenbakiak, eta posta elektronikoko helbidea eta ondoko inskripzioa eraman behar dute: "EPELEKO (BERGARA) KONPOSTATZE PLANTARAKO ETA HONDAKINAK TRANSFERITZEKO GUNERAKO OBREN ETA INSTALAZIOEN KONTRATAZIOA, ETA HORIEK MARTXAN JARTZEA".

Gutun bakoitzean, gainera, dagokion edukia adieraziko da, ondoko adierazpenekin:

1go GUTUN-AZALA: GAITASUNA ETA KAUDIMENA

2. GUTUN-AZALA: MEMORIA, ETA HOBEKUNTZA TEKNIKOAK ETA KALITATEZKOAK

3. GUTUN-AZALA: PROPOSAMEN EKONOMIKOA

14.- PROPOSAMENAK IREKITZEA ETA AZTERTZEA

1.- Kontratazio Mahaiak Igo gutun-azaleko edukian garaiz eta dagokion modura aurkeztutako dokumentuak aldeztu aurretik kalifikatuko ditu. Kalifikazio hori gauzatu ahal izateko, lehendakariak gutun-azal hori irekitzea aginduko du.

Mahaiak aurkeztutako dokumentazioan akats materialak daudela ikusiko balu, interesatuei jakinaraziko die, eta gehienez hiru egun baliouduneko epea emango da lizitatzailleek akats horiek zuzentzeko edo Kontratazio Mahaiaren beraren aurrean konpontzeko.

Era berean, SPKLTBren 82. artikuluan ezarritakoa gauzatzeko, Kontratazio Mahaiak aurkeztutako ziurtagiriak eta dokumentuak argitzeko eskatu ahal izango dio enpresariari, baita beste dokumentu osagarri batzuk aurkeztea ere. Hori gehienez hiru egun baliouduneko epean bete beharko du, eta horien bitartean, Kontratazio Mahaia ezin izango da

arduratu eskaintzak onartzeko epean nahitaez aurkeztu beharreko dokumentuez, ez lehen aipatutako zuzenketez edo akatsak konpontzeaz edo omisioez.

2.- 1go gutun-azalean dagoen SPKLTBren 146.1 artikulua aipatzen duen dokumentazioa kalifikatu, eta horrela badagokio, aurkeztutako dokumentazioan akatsak edo omisioak konpondu ondoren, Mahaiak HAKLEOren 11. artikulua aipatzen dituen hautatzeko irizpideak betetzen dituzten enpresak xedatuko ditu, eta berariaz emango ditu lizitazioan onartutakoak eta baztertutakoak, eta bazterketen arrazoiak.

3.- Automatikoki kuantifikagarriak ez diren irizpideei dagokien 2. gutun-azala izaera publikoko ekitaldi batean irekiko da. Ekitaldi hori SPKLTBren 146.1 artikulua aipatzen duen administrazio-agiria irekitzen denetik zenbatzen hasi eta gehienez zazpi egun naturaleko epean egingo da, kontratatzailearen profilean (<http://www.ghkinfo.com>) eta onartutako lizitzaileei faxez edo posta-elektronikoz bidalitako jakinarazpenean adierazten den tokian, egunean eta orduan, eta gutun-azaleko dokumentazioa balioztatzeko ardura duen organoari eskuratuko zaio azken hori.

4.- Onartutako proposamenen 3. gutun-azala aurreko jarduketan ondoren irekiko da, kontratatzailearen profilean (<http://www.ghkinfo.com>) eta onartutako lizitzaileei faxez edo posta elektronikoz bidalitako jakinarazpenean adieraziko den tokian, datan eta orduan egingo den ekitaldi publiko batean, balio-judizio bat egiteke duten irizpideei esleitutako haztapena jakinarazi ondoren.

5.- Proposamenen bat aztertutako eta onartutako dokumentazioarekin bat etorriko ez balitz, lizitazioaren oinarriko aurrekontua gaindituko balu, ezarritako eremuan funtsezko aldaeraren bat egongo balitz, edo proposamenaren zenbatekoan akats nabarmenen bat egongo balitz, edo lizitzaileak onartuko balu akatsa edo funsgabetasuna duela eta ondorioz bideraezina dela, ebazpen ziodun bidez baztertuko da mahaitik. Aldiz, ereduko hitz batzuk aldatzea edo alde batera uztea ez da nahikoa izango proposamena baztertzeko, batak edo besteak zentsua aldatzen ez duten bitartean.

6.- Mahaiak balioztapen-irizpideen bitartez balioztatuko ditu proposamenak. Irizpide horiek plegu honetan beheranzko ordenan jarri dira garrantziari eta haztapenari dagokionez, eta Mahaiak Kontratazio Mahaiari egingo dio egokia iruditzen zaion proposamena. Mahaiak, proposamena egin baino lehen, kontratuaren xedearekin harremana duten eta beharrezkoak iruditzen zaizkion txosten teknikoak eskatu ahal izango ditu.

15.-ESLEIPENERAKO IRIZPIDEAK

1.- GHK,SAUK lizitazioa hutsik dagoela adierazten ez badu, ekonomikoki onuragarriena den eskaintzari esleitu dio kontratua.

2.- Kontratua esleitzeko kontuan izan beharreko irizpideak zein haztapena plegu honen hasieran dagoen ezaugarrien koadroan ezarritakoak izango dira.

3.- **Lizitzailearen batek esleipen irizpideekin lotutako dokumentazioa ekarriko ez balu, edo dokumentazio horrek aurreko paragrafoetan eskatutako baldintza guztiak izango ez balitu, lizitzaile horren proposamena ez da balioztatuko dagokion irizpidearen atalean.**

4.- Proposamenak balioztatzeko prozedurari dagokionez, lehenik eta behin, Kontratazio Mahaiak formula aritmetikoen bidez balioztatu ezin diren esleipen irizpideei buruzko eskaintzak balioztatu beharko ditu.

Horretarako, aipatu irizpideei dagokienez, eskaintza guztiak onenetik txarrenera balioztatuko dira, beren ezaugarrien arabera eta gainerako eskaintzekin alderatu ondoren, eta kontratuaren xedea egikaritzeko hobetzeko eta perfektionatzeko duten egokitzapena kontuan izanik. Balioztapen horren emaitza argudiatu eta frogatu egin beharko da, dagokion balioztapen txostenean.

Ondorengo ekitaldi batean, Kontratazio Mahaiak eskaintzen balioztapena egingo du zenbakietan eta ehunekoetan balioztatu daitezkeen gainerako irizpideei dagokienez.

Irizpide bakoitzari dagozkion eskaintza guztien puntuazioa lortu ondoren, eskaintza horietako bakoitzaren puntuazio totala batuko da, eta puntuazio handiena duena izango da hautatua.

5.- Lotetsitako enpresek proposamen ezberdinak aurkeztuz gero, HAKLEOren 86. artikuluan zehazten diren ondorioak sortuko dira, SPKLTBren 152. artikuluan aurreikusitako ohiz kanpoko edo gehiegizko balioak dituzten eskaintzak ezartzeari dagokionez.

6.- Hasiera batean, gehiegizkotzat edo ohiz kanpokotzat hartuko dira onartutako eskaintza guztien batez besteko aritmetikoa baino gutxienez % 10 txikiagoak diren eskaintzak.

7.- Gehiegizkoa edo ohiz kanpokoia izan daitekeen proposamen bat identifikatzen denean, proposamen hori aurkeztu duen lizitatuzaileari audientzia eman beharko zaio, eskaintzaren balioztapena justifika dezan eta horren baldintzak zehatz ditzan, bereziki, kontratua egikaritzeko prozedurari aukera emango dion aurrezpenari, onartutako konponbide teknikoei eta zerbitzua egikaritzeko dituen ohiz kanpoko baldintza aparte, proposatutako zerbitzuen originaltasunari, zerbitzua gauzatu den tokian indarrean dauden enpleguaren babesari eta lan-baldintzei dagokien xedapenen errespetuari, edo Estatuko diru-laguntza bat lortzeko aukerari dagokionez.

Ohiz kanpoko edo gehiegizko balioak gehitu izanaren ondorioz proposamenak ezin direla bete hautemateko parametro objektibo bat da hitzarmen kolektiboaren arabera lanbide-kategoria bakoitzeko soldaten kostu minimoa baino prezio txikiagoa agertzea.

Lizitatuzaileak egindako justifikazioa eta dagozkion txosten teknikoak kontuan izanik, Kontratazio Organoak uste badu ezin dela eskaintza bete ohiz kanpoko edo gehiegizko balioak jartzearen ondorioz, sailkapenetik baztertu egingo du, eta esleipena ekonomikoki onuragarriena den proposamenari emango dio, proposamen horiek sailkatuak izan diren ordenaren arabera, eta uste bada GHK,SAUren gustura beteko duela eta ohiz kanpoko edo gehiegizkotzat hartzen ez denean.

8.- Kontratuaren esleipenean lehentasuna izango dute kaudimen teknikoak egiaztatzeko unean pertsonalean minusbaliotasuna duten % 2 baino langile gehiago duten enpresak aurkeztutako proposamenek, beti ere proposamen horiek, esleipenerako oinarri bezala hartzen diren irizpideei dagokienez, proposamen onuragarrienak dituztenek bezalako baldintzak badituzte. Proposamen onuragarrienak izateagatik parez gera zitezkeen enpresa lizitatuzaileetako batzuk egiaztatzen badute % 2 baino gehiagoko lan-harremana dutela minusbaliotasuna duten pertsonekin, kontratuaren esleipenean lehentasuna izango du langileen artean minusbaliotasuna duten langile finkoen ehuneko handiena duenak. Berdintasunak jarraituz gero, preziorik txikieneko proposamena eman duen enpresa aukeratu da. Biek prezio berdina izango balute, esleipena zozketa bidez erabakiko da.

16.- ESKEINTZEN SAILKAPENA ETA KONTRATUA ESLEITZEKO PROPOSAMENA

1.- Eskaintzak balioztatu ondoren, Kontratazio Mahaiak dagokion esleipen proposamena bidaliko dio Kontratazio Organoari, Aktarekin batera. Esleipen proposamen horretan eskaintzak agertuko dira beheranzko erara ordenatuta, esleipen irizpideen ezarpenaren ondorioz horietako bakoitzari emandako puntuazioa barne, eta ekonomikoki onuragarriena dena azpimarratuz.

2.- Kontratazio Mahaiak egindako esleipen proposamena ikusirik, Kontratazio Organoak, behereranzko ordenan aurkeztutako, eta plegu honetan adierazitakoari jarraiki gehiegizkotzat edo ohiz kanpokotzat hartu ez diren proposamenak sailkatuko ditu.

3.- Kontratazio Organoak ekonomikoki onuragarriena den eskaintza aurkeztu duen lizitatuzaileari eskatuko dio hamar egun baliodunen epean, eskakizuna jaso eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita, zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzako betebeharrak egunean daramatzala frogatzen duen dokumentazioa aurkez dezan, edo Kontratazio Organoari baimena eman diezaion zuzenean egiaztapena lor dezan; eta SPKLTBren 64.2 artikulua arabera kontratua egikaritu ahal izateko eskaintzera edo esleitzera konprometitu zen bitartekoak badituela egiaztatu dezan; baita behin betiko bermea eratu izana ere.

Horretarako, **III. ERANSKINA** bezala agertzen den ereduaren arabera, lizitatuzaileak berriazko baimena eman ahal du GHK,SAUk Gipuzkoako Foru Aldundian ageri diren zerga-datuak zuzenean atzitu ahal ditzen, eta ondorioz, egiaztapena zuzenean jaso dezan. Baimen hori emanaz gero, lizitatuzaileak ez du Gipuzkoako Foru Aldundiarekin zerga-betebeharrak egunean daramatzala egiaztatzeko dokumentaziorik aurkeztu behar izango, EJZri (Ekonomia Jardueren gaineko Zergari) dagokiona salbu.

4.- SPKLTBren 151.2 artikuluan ezarritakoaren arabera, eskakizun hori zuzen bete ez izanagatik ekonomikoki onuragarriena den eskaintza aurkeztu duen lizitatuzaileari ezin bazaio esleitu kontratua, lizitatuzaileak bere eskaintza baztertu duela ulertuko da, eta ondoren, dokumentazio berdina eskatuko zaio hurrengo lizitatuzaileari, eskaintzak sailkatu diren ordenaren arabera, eta epe berdinean.

5.- EJZn alta emanda dagoela egiaztatzeko, une horretako ekitaldiko edo EJZren azken ordainagiriaren alta dokumentua aurkeztuko da, aipatu zergaren matrikulan baja ez dela eman azaltzen duen aitortpen arduratsu batekin batera (HAKLEOren 15. art.).

Hala ere, lizitatuzaileak indarrean dagoen legedian ezarritako salbuespenen bat izango balu, zerga horretan alta emanda dagoela nahitaez egiaztatu behar izanaz gain, zerga-administrazio eskudunaren esanbidezko ebazpen baten bidez salbuespena eman diotela egiaztatu beharko du, eta horrelakorik izan ezean, aipatutako salbuespenaren arrazoi zehatza azaltzen duen adierazpen arduratsu baten bidez.

6.- Eskakizun hori aipatu epean behar bezala betetzen ez bada, lizitatuzaileak bere eskakizuna baztertu duela ulertuko da, eta ondorioz, hurrengo lizitatuzaileari, eskaintzak sailkatuta geratu diren ordenaren arabera, dokumentazio berdina eskatuko zaio.

17.-BEHIN BETIKO BERMEA

1.- Aurreko klausulan adierazitakoari jarraiki, ekonomikoki eskaintzarik onuragarriena aurkeztuko lukeen lizitatuzaileak hamar egun balioduneko epe barruan, eskakizuna jaso eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita, esleipenaren zenbatekoaren % **10eko** behin betiko bermea (BEZik gabe) osatu beharko du. Bermea SPKLTBren 96. artikuluan ezarritako edozein modutan eratu ahal izango da, martxoaren 1eko HAKLEOren 55. artikuluan eta hurrengoetan ezarritako eskakizunen arabera. Baldintza hori ez bada betetzen esleipendunari egotzi daitezkeen arrazoiengatik, GHK,SAUk ez du esleipenik egingo bere alde.

2.- Behin betiko bermeak SPKLTBren 100. artikuluan aipatutako kontzeptuen ardura izango du.

3.- Kontratua aldatzeagatik kontratuaren prezioa ere aldatzen bada, eraturako bermearen kopurua ere egokitu egingo da, bermearen eta indarrean dagoen kontratuaren artean dagokion proportzionaltasuna une oro mantentzeko. Bermearen egokitzapen hori hamabost egun naturaleko epean egingo da, enpresariari aldaketaren akordioa jakinarazten den egunetik zenbatzen hasita.

4.- Penalizazioak edo kalte-ordainak eraginkorrak diren egunetik zenbatzen hasi eta hamabost egun naturaleko epean, esleipendunak eraturako bermea berri eta handitu egin beharko du dagokion kopuruaren arabera. Bestela, ebazpena eman beharko da.

5.- SPKLTBren 102. eta HAKLEOren 65.2 eta 3. artikuluetan xedatutakoaren arabera, behin betiko bermea bueltatu edo indargabetuko da bermearen epea amaitzen eta kontratua ondo betetzen denean, edo kontratistari leporatu ezin zaizkion arrazoiengatik kontratua eten egin dela aitortzen denean.

18.-ESLEIPENA

1.- Kontratazio Organoak kontratua esleitu beharko du plegu honen 16. klausulan aipatzen den dokumentazioa jaso eta hurrengo bost egunetan.

- 2.- Litzitazio bat ezin izango da hutsik geratu, pleguan agertzen diren irizpideekin bat datorren eskaintza edo proposamena baldin badago.
- 3.- Kontratazio Organoak, esleipena egin baino lehen, beti ere, kontratua egikaritzeari uko egin ahal dio txostenean behar bezala arrazoitutako interes publikoko arrazoiengatik, edo esleipen prozedura ere atzera bota ahal du, kontratua prestatzeko edo esleipen prozedura arautzeko arauetan konpondu ezin den arau-hauste bat egon baldin bada. Kasu horietan bietan, hautagaiei edo lizitatzailerei konpentsatu egingo zaie, plegu honen karatulan adierazten den kasuan kasuko kopuruarekin.
- 4.- Esleipena egiteko neurriak hartuko dira, hautagaiei edo lizitatzailerei jakinarazi egingo zaie, eta aldi berean, kontratatzailearen profilean argitaratuko da (<http://www.ghkinfo.com>).
- 5.- Edozein kasutan ere, jakinarazpenean eta kontratatzailearen profilean kontratua formalizatzeko epea zein den adieraziko da, SPKLTBren 156.3 artikulua araberan.
- 6.- Aurkeztutako proposamenak, onartutakotzat aitortu direnak zein ireki gabe baztertu direnak edo ireki ondoren gaitzetsi direnak, txostenean artxibatuko dira. Kontratua esleitu eta dagozkion helegiteak jartzeko epea horiek jarri gabe igaro ondoren, proposamenekin batera eman den dokumentazioa interesatuen eskura jarriko da. GHK,SAUk lizitatzailerek emandako dokumentazioa desegin dezake, eskuragarri jartzen denean jasotzera agertzen ez badira.

19.- ESLEIPEN-KOEFIZIENTEA OBRA ZIBILEAN

- 1.- Onuragarriena deritzon proposamena esleitzen den ebazpenean, GHK,SAUk esleipen-koefizientea ezarriko du behin betiko.
- 2.- Esleipen-koefizientea kalkulatzeko esleipendunak bere proposameneko eskaintza ekonomikoan adierazitako prezioa (BEZ sartu gabe), eta proiektuan aurreikusitako instalazioari dagokion zatia baztertu eta lizitazioaren oinarriko aurrekontua (BEZ sartu gabe) alderatuta ateratzen den emaitza da.
- 3.- Obrak egikaritzen diren bitartean erabiliko diren aleko prezioak GHK,SAUk onartutako proiektuan agertzen direnak izango dira, eta prezio horiek lizitatzailerek egindako eskaintza ekonomikoaren emaitzatik ateratako esleipen-koefizientearen eragina izango dute.
- 4.- Esleipen-koefizientea proiektuaren obra zibilari ezarriko zaio bakarrik, eta instalazioari dagokion zatian ez da aplikatuko.

20.- KONTRATUAREN FORMALIZAZIOA

- 1.- Kontratuaren formalizazioa administrazio dokumentuan egingo da.
- 2.- Kontratua formalizatzen denean burutzen da.
- 3.- Kontratua sinatu aurretik, esleipendunaren ordezkariak Kontratazio Organoaren aurrean ondokoa aurkeztu beharko du:
 - Bere identitatea eta ordezkariatza ziurtatzen duten dokumentuak.
 - Lizitazio iragarkiak ordaindu izanaren egiaztagiriak.
 - Esleipenduna Aldi Baterako Enpresa Elkarte bat balitz, elkarte horren sorreraren eskritura-publikoa, eskritura horri esleitutako IFK eta ahalorde nahikoa duen ordezkariaren izendapena.
 - Poliza originala eta dagozkion hobariak ordaindu izanaren ordainagiriak edo plegu honen 28. klausularen 19. atalean aipatzen den aseguruua duela ziurtatzen duen aseguru erakundeko ziurtagiria, plegu honen 42. eta 43. artikuluetan adierazten diren estaldura minimoekin.

4.- SPKLTBren 40.1 artikuluari jarraiki kontratazio gaietan helegite berezia jarri ahal bazaio kontratuari, kontratua ezin izango da formalizatu esleipenaren jakinarazpena lizitazailerei eta hautagaiei bidaltzen zaien egunetik zenbatzen hasi, eta hurrengo hamabost egun baliodunak igaro baino lehen. Kontratazio Organoak esleipendunari eskatuko dio kontratua formaliza dezan eskakizuna jaso eta gehienez hurrengo bost egun naturaletan, aurreko paragrafoan aurreikusitako epea igaro ondoren, eta kontratuaren formalizazioari uko egin araztera eramango lukeen helegiterik jarri izan ez balitz. Berdin-berdin jardungo da helegitea ebazteko organo eskudunak galarazpena kenduko balu.

Gainerako kasuetan, lizitazailerei eta hautagaiei, SPKLTBren 151.4 artikuluan aurreikusitako modura, esleipenaren jakinarazpena eman eta gehienez hurrengo hamabost egun baliodunetan egin beharko da kontratuaren formalizazioa.

5.- Kontratua formalizatzerakoan eta sinatzerakoan, esleipendunak sinatuko du baita ere obra-unitateen zati diren oinarritzko edo funtsezko materialen deskribapenari dagokion guztiaren Memoria: planoak, xedapen teknikoen pleguak eta proiektuaren aurrekontuaren prezioen koadroak, zein Administrazio Klausulen Plegu hau ere. Dokumentu horiek guztiek kontratu izaera dute, eta horrela, ados daudela eta onespena ematen dietela frogatzen dute.

6.- Esleipendunari ezarri beharreko arrazoiengatik kontratua aipatu epean formalizatu izan ez balitz, GHK, SAUK adostu ahal izango du kasu horretan eskatutako behin-behineko bermearen zenbatekoa konfiskatzea behin betiko bermetik.

Formalizatu ez izanaren arrazoiak GHK, SAUri leporatu ahal baldin badira, atzerapenaren ondorioz sor daitezkeen kalte-galerak ordainduko zaizkio kontratistari.

7.- Kontratua ezin izango da egikaritu aurretik formalizatu ez bada, SPKLTBren 112 eta 113 artikuluetan aurreikusitako kasuetan salbu. Hori gainera, edozein ordainketa bideratzeko ezinbesteko eskakizuna izango da.

8.- Kontratua formalizatu izana publiko egingo da SPKLTBren 154. artikuluan xedatutakoaren arabera.

III ATALA KONTRATUA EGIKARITZEA

21.- OBREN ZUZENDARITZA


1.- Obrak GHK, SAUren zuzendaritza, zaintza eta kontrolpean egingo dira, zeinak bere langileen artean edo kontratu bidez obren zuzendari fakultatiboa izendatuko duen. Ordenak eta jarraibideak lan-ordezkararen bidez emango zaizkio kontratistari.

2.- Obren zuzendaritza fakultatiboaren jarraibideak ezin izango dute onartutako Proiektua edo Xedapen Teknikoen Plegua aldatu. Hala ere, interpretatu eta argitu ahal izango dituzte.

3.- Kontratistak "Ordenen liburu" bat eta "Azpikontratazio liburu" bat mantendu eta izan beharko ditu une oro eta obran, zuzendaritza fakultatiboarentzako eskuragarri. Liburu horiek indarrean dagoen legedian xedatutakoaren arabera erabiliko da.

4.- Esleipendunak obren zuzendaritzarentzat eskuragarri jarriko du lokal bat edo obrako kaseta bat, plegu honen 28. klausulan aurreikusten diren ezaugarriekin.

22.- KONTRATUAREN GAINBEGIRALE ARDURADUNA

Idazkaririk,


1.- Kontratazio organoak erakunde kontratatzaileari lotutako edo hortik kanpoko pertsona fisiko edo juridiko bat esleitu ahal izango du lanaren arduradun bezala. Pertsona horrek obra egikaritzen dela gainbegiratu du, eta egiten dena kontratuan ezarritakoarekin bat datorrela egiaztatuko du, baita kontratistari Kontratazio Organoaren ordenak eta jarraibideak bideratu ere. Hain zuzen ere ondoko eskuduntzak egokituko zaizkio kontratuaren arduradunari:

- Kontratistari egotzi daitezkeen kontratu-hausterik egonez gero, hari ezarri beharreko zigorrak proposatu.
- Obra eta instalazioen harrera egin, eta dagokionean, harrena egindakotzat eman.

2.- Eskuduntza horiek obren zuzendari fakultatiboari dagozkien kalterik egin gabe beteko dira, SPKLTBren IV Liburuaren II Tituluko I Kapituluaren xedatutakoaren arabera.

23.-ZUINKETA-EGIAZTAPENA

1.- Obren kontratua egikaritzen hasiko da zuinketa-egiaztapenaren aktarekin, zein formalizatzen den egunetik zenbatzen hasi eta gehienez hurrengo 10 egunetan egingo den, justifikatutako salbuespeneko kasuak salbu. Obren zuinketa-egiaztapena esleipendunaren edo horren ordezkariaren aurrean egingo da, SPKLTBren 229. artikulua eta HAKLEOren 139, 140 eta 141. artikuluekin eta horietan aurreikusitako eraginekin bat.

2.- Zuinketaren oinarrien edo proiektuaren definizio geometrikoa egiteko euskarri bezala hartuko diren erreferentzien egoera eta baliozkotasuna egiaztatu ondoren, kontratista horien kontserbazioarekin, mantentze-lanekin, eta dagokionean, ordezkapenarekin arduratuko da.

3.- Kontratistaren ardura izango da zuinketaren lanak burutzea, baita obrak egikaritzeko eta mugarriak mantendu eta ordeztzeko topografia-lan zehatzak burutzea ere, obra zuzendaritzak egindako zuinketa-egiaztapen lanak kanpo.

4.- Aipatutako zuinketa-lanak kontratistaren ardurapean daude, eta proiektuaren aleko prezioetan jasota egongo dira.

5.- Obra egikaritu baino lehen, kontratistak obra zuzendaritzak eskatu ahal dizkion xehetasun-planoak aurkeztuko ditu onartuak izan daitezkeen. Baldintza hori bereziki ezarriko da konponbideak konpostatze prozesuaren hornitzaile teknologiko zehatz batekin harreman zuzena duen kasuetan.

24.-KONTRATU-EPEAK

1.- Obrak plegu honetan finkatutako epeetan hasi, egikaritu eta bukatu beharko dira, eta edozein kasutan ere, kontratistaren proposamen barruan dagoen lanen programatik sortzen diren epeetan, horiek hobetzen dituztenean.

2.- Aukeratutako proposamen onuragarrienari esleipena ematen dion ebazpenean argi utziko du GHK, SAUK kontratu-epeak zeintzuk diren, aukeratutako eskaintzatik sor daitezkeen bukaerako epea eta epe partzialak barne.

3.- Lanen programa onartzerakoan, adierazten diren mugarriek dagozkien epe partzialak finkatuko dira, aurrekoari kalterik egin gabe. Epe horien galdagarritasunari dagokionez, kontratuaren parte direla ulertuko da.

4.- Kontratu-epeak aldatzeko aukera GHK, SAUK izango du bakarrik, ondorengo ebazpenaren bidez.

25.-LAN-PROGRAMA

- 1.- Kontratatistak bere eskaintzan jaso duen Lanen Programaren garapen egoki bat aurkeztu beharko dio obren zuzendaritza fakultatiboari onar dezan, HAKLEOren 144.3 artikuluan ezarritakoaren arabera, eta kontratua formalizatzen denetik hasi eta gehienez hurrengo bost egun naturaleko epean.
- 2.- Lan-programak ezin izango du inolako aldaketarik sartu kontratuaren baldintzetan. Hala ere, obra egikaritzeko epe osoa murriztea eta epe partzialak aldatzea proposa dezake, beti ere GHK, SAUren kreditu erabilgarritasunek aldaketa horien ondorioz urtesarrietan doiketak egiteko tarterik ematen badute, eta obraren esleipenaren aurrekontu osoa inola ere gehituko ez balitz.
- 3.- Lan-programa onartzerakoan finkatu beharreko epe partzialen galdagarritasuna kontratuaren beste edozein alderdi bezalakoa izango da.
- 4.- GHK,SAUko organo eskudunak programa aurkeztu eta hurrengo bost egun naturalen barruan emango du ebazpena, eta zenbait aldaketa sartzeari edo preskripzio betetzea agindu ahal izango du, kontratuaren klausulak hausten ez dituen bitartean. Onarpen horren arabera, GHK, SAUk dagozkion epe partzialak finkatuko ditu.
- 5.- Lan-programa kontratuan sartuko da, onartua izan ondoren, eta dagokionean, urtesarien arabera doituko da.
- 6.- Kontratatistak Lanen Programa eguneratu beharko du kontratu-baldintzak aldatzen diren bakoitzean, eta lanen programa hori finkatu edo eguneratuko du GHK, SAUren aldetik jasotzen dituen jarraibideen arabera.
- 7.- Kontratatzaileak bere lan-programa egokitu eta koordinatuko du dagokien zerbitzuak kendu eta ordeztuz, bai kontratuaren barruan sartzen direnak, zein Iberdrola, S.A., Telefónica, S.A., Euskaltel, S.A., Correos y Telégrafos, S.A. eta gasa hornitzen duten enpresei dagozkienak ere.
- 8.- Obraren zuzendariak ziurtagiriak ez bideratzea adostu dezake kontratatzaileak lan-programa behar bezala aurkezten duenera arte, ziurtagiri horien ordainketaren atzerapenean berandutze-interesetik eskubiderik izan gabe.

26.- OBRAREN KALITATEAREN ASEURAMENDU-PLANA (KAP)

Kontratatzaileak Lanen Programarekin batera horrekin bat datorren Kalitatearen Aseguramendu Plana aurkeztuko du, eta gutxienez ondoko atalak izango ditu:

1. Proiektuaren dokumentuen azterketa eta Proiektuaren Xedapen Teknikoen Pleguan eskatutako eskakizunak identifikatzea.

Obrak egiteko beharrezkoak diren, eta kontratatzailearen arabera, duten garrantziagatik Kalitatearen Aseguramendu Planen eskakizunen menpe egon behar diren materialak eta zerbitzuak identifikatzea, eta horien zerrenda.

Kalitatearen Aseguramendu Planaren menpe dauden obra-unitateak identifikatzea eta horien zerrenda.

Kalitatearen Aseguramendu Planaren menpe egon behar diren beharrezko bilketa garrantzitsuak identifikatzea.

2. Obraren egitura eta antolaketa eta Kalitate Unitatearen definizioa.

Obraren antolakuntza orokorra, postu garrantzitsuen definizioarekin eta dagokien egitekoarekin batera.

Kalitate Unitatean behin betiko edota aldi baterako adskribituko diren bitartekoen eta langileen zerrenda (obren egikaritze ildoarekiko askeak izango direnak). Postu nagusiei esleitutako langile horien profila adierazi beharko da, bereziki, Unitate Buru izendatuko denarena. Izan ere, azken hori Bide, **Ubide eta Portuetako Ingeniaria edo Industri Ingeniaria** izan beharko da, edo, atzerriko enpresen kasuan, titulazio baliokidea duen fakultatibo bat.

3. Obran jasotako eta sortutako dokumentazioa kontrolatzeko ezarri beharreko sistema.
4. Erosketei, azpikontratazioei eta harrerei dagokien antolaketa eta araudia.
5. Prozedurak, eta horiek idazteko arauak eta adibideak.
6. Ikuskaritzak eta entseguak, Ikuskaritza Puntuen Programak aipatuz.
7. Adostasunik ezeko kasuetarako aurreikusitako tratamendua.

27.- SEGURTASUN ETA OSASUN PLANA LANEAN

1.- Obren kontratista esleipendunak laneko Segurtasun eta Osasun Plan bat egin beharko du, urriaren 24ko 1627/1997 Errege Dekretuko 7. artikuluan ezarritakoaren arabera, non ezartzen diren eraikuntza lanetan segurtasun eta osasun gaitan jarraitu beharreko gutxieneko xedapenak. Xedapen horien bi kopia eman beharko zaizkio GHK, SAUri, kontratua formalizatzen den egunetik hasi eta hurrengo bost egun naturaleko epean. Segurtasun eta osasun planak ezin izango du inolako aldaketarik egin kontratuaren baldintzetan, non, besteak beste, aurreikusitako azpikontratazioak zerrendatuko diren, horrela badagokio.

Plan hori, koordinatzailearen txostenarekin batera, edo, horrelakorik ezean, zuzendaritza fakultatiboarekin eramango zaio, obrak hasi baino lehen, GHK, SAUko organo eskudunari, horrek onar dezan. Horretarako, Segurtasun eta Osasun koordinatzaileak jasotzen duen egunetik zenbatzen hasi eta hurrengo zazpi egun naturaleko epearen barruan onartzen duen ala ez jakinaraziko du, eta ezezkoa bada, zuzendu beharreko puntuak zeintzuk diren adieraziko du. Zuzenketa horretarako epea zuzenketa horien garrantziaren arabera jarriko da, eta ez da inoiz zazpi egun baino gehiagokoa izango.

Edozein kasutan ere, lanean Segurtasun eta Osasun Plana onartzeko epe maximoa bost egunekoa izango da, kontratua formalizatzen den egunetik zenbatzen hasita. Kontratatistak aurreko paragrafoan adierazitako epeak bete ez izanagatik obrak egiten hasteko baimena jasotzerakoan lan horiek ezin izango balira hasi, ezin izango da inola ere eskatu arrazoi horregatik epea zabaltzea.

2.- Koordinatzaileak edo horretarako zuzendaritza fakultatiboan esleitutako pertsonak obra guztiak edo atazak aldi baterako geratzea agindu ahal izango du, bereziki, pertsonentzako arrisku hurbila edo larria izan dezaketen segurtasun eta osasun neurriak ez direla betetzen ikusten bada. Kasu horietan, gertatutakoa berehala jakinaraziko dio Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskailtzari eta gainerako interesatuei, urriaren 24ko 1627/1997 Errege Dekretuaren 14. artikulua arabera.

3.- Lanean Segurtasun eta Osasun Planik onartzen ez den bitartean ez da obrarik hasiko. Kontratatistak edo azpikontratatistak segurtasun eta osasun neurriak ez dituelako obrak egiten ari diren bitartean horiek geratzea agintzen bada, obra edo ataza geratuta egongo den denbora zenbatu egingo da egikaritze epean kontuan har izan dadin. Neurri horiek ez betetzea obra eteteko arrazoi nahikoa izan daiteke, SPKLTBren 212,213 eta 237 artikuluen arabera.

28.-KONTRATISTAREN BETEBEHAR NAGUSIAK

1.- Kontratuaren enpresa edo Aldi Baterako Enpresa esleipendunak proiektuan jasotako obrak egikaritu eta eman beharko dizkio GHK,SAUri kontratuan aurreikusitako epeetan.

2.- Obrak egikaritzeko hertsiki jarraitu behar dira onartutako Proiektua eta plegua, orokorrean ezarri beharreko araudia eta, beti ere, kontratatutako lan mota horiei dagozkien arau teknikoak. Era berean, obrako zuzendariak kontratatari emango dizkion jarraibideak ere jarraituko dira, dagokien interpretazio teknikoarekin. Jarraibide horiek ahozkoak direnean, idatziz berretsi beharko dira ahalik eta azkarren, lotesleak izan daitezen alderdi guztientzako.

3.- Kontratua kontratistaren arriskura eta halabeharrera egikarrituko da, SPKLTBren 231. artikuluan ezarritakoari kalterik egin gabe.

4.- Kontratista arduratuko da proiektuan aurreikusitako irtenbideak zuzen garatzen eta egikaritzen direla, obrak behar bezala bukatzen direnera arte.

5.- Obrak egiten diren bitartean, eta bermearen epea betetzen denera arte, eraikuntzan antzematen diren akatsen arduraduna kontratista izango da.

GHK, SAUK izendatutako zuzendari fakultatiboaren iritziz obran gaizki egikaritutako zatiren bat egongo balitz, kontratistak berriz ere egin beharko du, inolako kalte-ordainen eskubiderik gabe, nahiz eta akatsa harreraren ondoren antzeman.

Zuzendaritzak uste badu akatsak izan arren, edo kontratuaren baldintzak hertsiki bete ez izan arren, obra-unitateak onargarriak direla, GHK, SAUK horiek onartzea eska diezaioke, dagokion prezio merkeagoarekin. Kasu horretan, kontratistak GHK, SAUK finkatutako prezio merkeagoak onartu beharko ditu, nahitaez, ez baldin badu nahi akatsak dituzten unitateak bota eta berreraiki bere kontura, kontratuaren baldintzen arabera.

6.- Kontratistak kontratuaren eskura jarriko du topografia-teknikari bat, horrelakorik behar duten lan guztiak egiteko titulazio nahikoarekin.

7.- Obrak egikaritzeko behar den energia elektrikoko hornidura kontratistaren kontura izango da, eta berak ezarriko ditu hornidura linea edo lineak.

8.- Era berean, kontratistak obra zuzendaritzaren eskura bulego klimatizatu bat jarri beharko du, azalera egokia eta nahikoarekin, obrari dagozkion atazak gauzatzeko, bulegoak banatzeko panelekin, mahaiekin, aulkiekin eta apalategiekin, baita telefonoa eta faxarekin ere, zein energia elektriko eta beharrezko osasun zerbitzuen harguneekin ere.

9.- Obrak bukatzerakoan, kontratistak bere kontura eraiki, desmuntatu eta kendu beharko ditu bulegoentzako, biltegiarako, estalguneentzako, sarbide pistentzako, zerbitzu-bideentzako eta abarretarako beharrezko eraikuntza osagarri guztiak. Eraikuntza horiek guztiak Obra Zuzendaritzaren onarpenaren baldintzapean egongo dira, sarbide, kokapen, kota eta abarrei dagokienez.

10.- Kontratistak, obrak bukatzerakoan edo bukatu aurretik, ahal dituen eraikuntza, instalazio eta obra osagarri edo behin-behineko kenduko ditu bere kabuz, baita tresnak, materialak, etab. ere. Horiek kendu ondoren, obrek okupatutako tokiak garbituko ditu, eta garbi eta obra-hondakinik gabe utziko ditu.

11.- Kontratistak instalazioen eta behin-behineko obren eraginaren ondorioz erasandako azalera tratatuko ditu, eta jatorriz zeuden bezala utziko. Horrela egingo ez balu, Obra Zuzendaritzak aipatu lanak egitea agindu dezake, alde zuzenetik jakinarazi ondoren, esleipenaren kargu.

12.- Ondoren adierazten dira, gutxi gorabehera, kontratistak bere kontura erantzun beharreko ezaugarri batzuk:

- Topografia osagarria eta zuinketa topografia.
- Kaltetuak izan diren zerbitzuak antzematea eta kentzea programatzea.
- Aipatu zerbitzuak berriz emateko proiektua, eta proiektu hori egikaritzea, proiektuaren titularren arabera eta horiekin bat.
- Proiektuaren irtenbide teknikoak lurzorua baldintza errealekara egokitzea, bereziki ikuspuntu geotekniko batetik.
- Espondak eta zimenduak doitu eta berriz egokitzea, horrela badagokio.
- Leherketen ikerketa eta plana, proba sismografikoak eta hirugarrenenganako afektazio mugaketak barne, horrela dagokionean.
- Sestrak doitu eta dagokien zoruen lodierei egokitutako egiturak geometrikoki definitu berriz ere.
- Sarbideak eta behin-behineko pasalekuak, eta zirkulazio desbiderapen komenigarriak edo beharrezkoak obrak egikaritzeko, seinaleztapen eta gailu egokiak, semaforo-seinaleak barne.
- Egituren proben proiektua, egikaritzea eta ebaluazioa.

- GHK, SAUren ekimenari jarraiki obraren kontratu-baldintzen eta indarrean dagoen legediaren arabera kontratista esleipendunari enkargatu daitezkeen obra osagarri guztiak, esaterako, sarbideak berriz jarri edo egokitu, edo, dagokionean, argiztapen azpiegiturako obra zibilak edo beste zerbitzu batzuk.

13.- Kontratatik lan-taldearekin eta baliabide pertsonal egokiekin egikaritu beharko ditu lanak, eta une oro erantzun beharko dizkie ataza eta espezialitate ezberdinei dagozkien beharrei.

14.- Obrak egiterakoan, kontratatik inpaktu eta ingurumenak zaharberritzeko gaietan aditua den profesional bat izan beharko du, gutxienez. Profesional hori gai horrekin lotutako obra-unitateekin arduratuko da. Izan ere, unitate horiek egiteko ardura espezialisten eskuetan egon behar da (landaketan, zaraten kontrako gailuetan, neurri artezleetan eta abarretan adituak).

15.- Kontratatik material guztiak eta obra bera babestu beharko du eraikuntza garaian narriadura eta kalte ororen aurka, eta material sukoi guztiak biltegiratu eta babestu beharko ditu suteen aurka.

16.- Kontratatik beharrezko neurriak hartuko ditu, dagokionean erregaien, aglutinatzaileen, olioien edo kaltegarria izan daitezkeen beste edozein materialengatik uren kutsadura saihesteko.

17.- Obraren barruko eta kanpoko eremu guztiak garbi-garbi mantendu beharko ditu, eta hondamenak eta zaborrak kendu beharko ditu.

18.- Kontratatik bide publikoak libre eta egoera onean utzi beharko ditu nahitaez, eta behar diren obrak egin beharko ditu oinezkoak eta ibilgailuak iragan daitezkeen obrak egikaritzen diren bitartean. Obren eraginez egokitu behar diren zerbitzuei dagozkien jarduketak Obra Zuzendaritzaren jarraibideen arabera egingo dira, zirkulazioari egin beharreko afektazioak minimora murriztu daitezkeen, eta erabiltzaileen bide-segurtasuna berma dadin. Obrak egiten diren bitartean erabiliko diren bide publikoak erabilera-baldintza zuzenekin mantenduko dira une oro, eta garbi daudela eta erabiltzaileen segurtasuna zainduko dira bereziki.

19.- Kontratatik kontratuaren egikaritze iraupen osoan (luzapenak barne) eta dagokion berme epean (luzapenak barne) **aseguru-kontratu bat izan beharko du hirugarrenari kalte egitearen ardura babestuko diona, baita obrari kalte egitearen ardura babestuko dion aseguru ere**, plegu honen 40. eta 41. klausuletan aipatzen diren estaldura minimoekin. Aseguru horietan, bereziki adieraziko dira, besteak beste, aseguratuak, estaldura minimoak eta bermatutako zenbatekoak, eta plegu honen "Ezaugarrien koadroa"-n ezartzen diren kopuru aseguratuak. **Kontratatik kontratua sinatu aurretik egiaztatu beharko du hori**, jatorrizko poliza eta dagozkion primak ordaindu izanaren ordainagirien bidez, edo aseguru-erakundeari dagozkion ziurtagirien bidez. Atal honetan adierazitako edozein eskakizun egiaztatu gabe utziz gero, kontratua eten egingo da, betebeharrak honetako kontratu-betebehar izaera baitu, SPKLTBren 223 g) artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

Edozein kasutan ere, esleipendunak kalte-galerak ordaindu beharko ditu, alegia, frankiziei dagokien kopuruak eta aseguru-poliza ezberdinetan ezartzen diren mugen gainerako kopuruak, baita horietan estali gabe dauden ondasun eta arriskuei dagokienak ere.

20.- Kontratatik datuak eta aurrekariak isilean gorde beharko ditu, nahitaez, horiek publikoak edo ospetsuak ez badira ere kontratua egiterakoan jakiten badu kontratuaren xedearekin lotuta daudela (HAKLEO 112.1 art.). Ondorioz, ezin izango die hirugarrenei informaziorik eman kontratuaren xedeari buruz, ezta obrara inori sarbiderik eman ere, horretarako GHK,SAUren aldez aurreko baimenik ez badu.

21.- Kontratatik betebeharra izango da bere nortasun juridikoari eragiten dion edozein aldaketa jakinaraztea modu frogagarrian GHK, SAUari. Horrela, dagozkion fakturak ordaintzeko legalki aurreikusitako epeen zenbaketa bertan behera geratzen da, horiek egiaztatzen direnera arte.

29.-KONTRATISTAREN BERARIAZKO BETEBEHARRAK

- 1.- “Jarduera lizentzian finkatutako neurri artezleak” eta proiektuaren gainerako dokumentuetan eskatzen dena bete behar du kontratistak.
- 2.- Aipatu betebeharrak betetzen ez badira, SPKLTBren 212. artikuluan aurreikusitako zigorra ezarriko da, kontratuaren xedari dagokion prestazioa akatsekin egikaritzeagatik.
- 3.- Zigorra bete ez den zerbitzu horren larritasunaren arabera izango da, proportzionaltasun irizpide baten arabera.

30.-KONTRATISTAREN BETEBEHARRAK LAN GAJETAN, GIZARTE-ASEGURANTZAN ETA LANEKO SEGURTASUN ETA OSASUNEAN

- 1.- Kontratistak lan gaietan indarrean dauden lege eta araudien xedapen eta ohiko guztiak bete beharko ditu. Hain zuzen ere, Gipuzkoako Eraikuntza eta Obra Publikoen Hitzarmen Kolektiboaren (2007-08-31ko GAO) edo hori berrikusten duten hurrengo hitzarmen-kolektiboaren lan-baldintzak ezarri beharko ditu, alegia, gizarte-segurtasuna eta laneko segurtasuna eta osasuna berrikuzten dituztenak. Izan ere, laneko istripuei dagokien guztiak kontratistaren ardura hutsean egongo dira. Bereziki, bere kargura eta ardura guztiarekin egikaritu beharko du urriaren 24ko 1627/1997 Errege Dekretuan eta plegu honetan ezarritakoaren arabera idatzitako eta onartutako Segurtasun eta Osasun Plana. Kontratistak aurrekoa ez betetzeak ez du esan nahiko GHK, SAU erantzule egingo duenik.
- 2.- Era berean, azpikontratutako enpresei dagokien datuak eskatu ondoren, kontratistak egiaztatu beharko du enpresa horiek lan gaietan indarrean dauden aipatu xedapenak ezartzen dituztela baita ere obrak egikaritzeko, bereziki aipatu Gipuzkoako Eraikuntza eta Obra Publikoen Hitzarmen Kolektiboaren lan-baldintzak, zein segurtasun eta lan-osasun gaietan dauden betebeharrak guztiak.
- 3.- Enpresa kontratistek eta azpikontratistek ere abuztuaren 24ko 1109/2007 Errege Dekretuan aurreikusten diren enpleguaren kalitatearen baldintzak bete behar dituzte. Errege Dekretu horrekin 32/2006 Legea egin da, zeinaren bidez Eraikuntza Sektorean azpikontratazioa arautzen den, kontratu mugagabedun ehuneko langile minimoari, eta lan arriskuak saihesteko giza-baliabideen trebakuntzari buruzkoa.

Kontratista esleipendunak Gipuzkoako eraikuntza sektoreko erakunde sindikal adierazgarrien ordezkariari obretan sartzen utzi beharko die, lan-arriskuak saihesteko araudia eta gainerako lan-baldintzak betetzen direla egiaztatzeko.

- 4.- Atal honetan jasotako betebeharrak gauzatzeko sortutako gastuen ardura esleipendunarena izango da, eta gastu horiek kontratua egikaritzeko eskaintako prezioaren barruan sartuta egongo dira.
- 5.- Aurreko paragrafoetan ezarritako betebeharrak obrak egikaritzeko baldintza bereziak dira, obrak egikaritzeko esparruan egiaztatu beharko dira eta funtsezko izaera duten kontratu betebeharrak dira. Ondorioz, betetzen ez badira, diru-zigorrak ezarri ahal izango dira (arau-haustearen larritasunaren proportziozkoak, eta kontratuaren aurrekontuaren gehienez % 10ekoa), eta arau-hauste errudunagatik kontratua eten ahal izango da, SPKLTBren 212.1 eta 223 f) artikuluen arabera. Zigor horiek kontratistari ordainketa oso edo partzial gisa ordaindu beharreko kopuruetatik edo garantiatik kenduko dira, SPKLTBren 212.8 artikuluen arabera.

31.-ERAIKUNTZA ETA ERAISPEN HONDAKINEN INGURUKO BETEBEHARRAK

- 1.- Ezarri beharreko araudian aurreikusitako betebeharrak gain, lanak hasi baino lehen, obra egikaritzen duen pertsona fisiko edo juridikoak obran sortuko diren eraikuntza eta eraispentzen hondakinei dagokien betebeharrak gauzatzeko modua islatuko duen plan bat aurkeztu beharko dio nahitaez obraren jabetzari, bereziki otsailaren 1eko 105/2008 Errege Dekretuaren 4.1 eta 5. artikuluan jasotzen diren betebeharrak. Arau horren bidez, eraikuntza eta eraispentzen hondakinen sortze eta kudeaketa arautzen da.



Idazkaririk,
[Signature]

- 2.- Zuzendaritza fakultatiboak eta jabetzak plana onartzen dutenean, plan hori obrako kontratu-dokumentuen parte izango da.
- 3.- Aipatu betebeharrak betetzen ez badira, SPKLTBren 212. artikuluan aurreikusitako zigorra ezarriko da, kontratuaren xedeari dagokion prestazioa akatsekina egikaritzeagatik.
- 4.- Zigorra arau-hauste horren larritasunaren arabera izango da, proportzionaltasun irizpide baten arabera.

32.- BALDINTZA LINGUISTIKOAK KONTRATUA EGIKARITZERAKOAN

- 1.- Errotuluak, oharrak, seinaleztapenak eta izaera orokorreko beste komunikazioak euskaraz eta gaztelaniaz egingo dira. Euskarari lehentasun grafikoa emango zaio gaztelaniaren aurrean.
- 2.- Betebehar linguistiko hori betetzen ez bada, SPKLTBren 212. artikuluan aurreikusitako zigorra ezarriko da, kontratuaren xedeari dagokion prestazioa akatsekina egikaritzeagatik.
- 3.- Zigorra arau-haustearen larritasunaren arabera izango da, proportzionaltasun irizpide baten arabera.

33.- EKIPOA ETA BALIABIDE PERTSONALAK

- 1.- Kontratatistak lan-talde eta baliabide pertsonal egokiekina gauzatu beharko ditu obrak, eta une oro erantzun beharko dizkie lanak egiterakoan sor daitezkeen beharrei.
- 2.- Bereziki, lan eta espezialitate ezberdinen behar zehatzei erantzuteko gaitasun nahikoa duten proiektu eta obrarentzako beharrezko laguntza teknikoa aurreikusteko ardura hartu beharko du.
- 3.- GHK, SAUK kontratistari eskatu ahal izango dio gai bereziki zailetan edo kritikoetan arduradun adituak izenda ditzan, obraren zuzendaritza fakultatiboaren ustez horrelakorik behar izanez gero.
- 4.- Kontratatistak bere eskaintzan izendatutako fakultatiboak eta gainerako langileak esleitu beharko ditu, plegu honek aipatzen dituen lanak egikaritzeko, era bertan zehaztutako arduraldiarekin. Ondorioz, kontratuak irauten duen bitartean, lanaldi osoz jarduten duten langileen ezin izango dute beste lan batean aritu. Era berean, kontratatistak ezin izango du bere eskaintzan ezarritako langileak ordeztu, obraren zuzendariaren berariazko baimenik gabe. Betebehar hori funtsezkoa da, SPKLTBren 223 f) artikuluan aurreikusitako ondorioetarako. Horretarako, GHK, SAUK onarpena eman beharko dio bere eskaintzako edozein teknikari ordeztu nahi badu, izendapen berriko pertsona edo pertsonen curriculumak aurkezten ondoren, horrela eskatzen bada.
- 5.- Plegu honen 10. klausulan ezartzen den bezala, lankidetzaren lehiaketa proposatzen bada, lankidetzaren konpromisoaren aitorpena eman beharko da. Kontratatistak ezin izango du bere eskaintzan proposatutako kolaboratzaileak baztertu, ezta beste batzuegatik ordeztu ere, kontratuaren zuzendaritzak onarpena ematen ez badu. Betebehar hori funtsezkoa da, SPKLTBren 223 f) artikuluan aurreikusitako ondorioetarako.
- 6.- Aurreko paragrafoetan ezarritako betebeharrak obrak egikaritzeko baldintza bereziak dira, kontratua egikaritzeko esparruan egiaztatu beharko dira eta funtsezko izaera duten kontratu betebeharrak dira. Ondorioz, betetzen ez badira, diru-zigorrak ezarri ahal izango dira (arau-haustearen larritasunaren proportziozkoak, eta kontratuaren aurrekontuaren gehienez % 10ekoa), eta arau-hauste errudunagatik kontratua eten ahal izango da, SPKLTBren 212.1 eta 223 f) artikuluen arabera. Zigor horiek kontratistari ordainketa oso edo partzial gisa ordaindu beharreko kopuruetatik edo garantiatik kenduko dira, SPKLTBren 212.8 artikuluen arabera.



34.- MAKINERIA ETA BALIABIDE TEKNIKOAK

- 1.- Kontratastak bere proposamenean jasotako makineria eta baliabide teknikoak ere eramango ditu obretara, eta orokorrean, obra horiek ondo egikaritzeko beharrezkoak direnak eramango ditu. Betebehar hori funtsezkoa da, SPKLTBren 223 f) artikuluan aurreikusitako ondorioetarako.
- 2.- Bere eskaintzan jasotako makineriaren edo baliabide teknikoen edozein aldaketa GHK,SAUk onartua izan beharko da, proposamen arrazoitua aldez aurretik aurkeztu ondoren.
- 3.- Makineria eta baliabide teknikoak lan-baldintza onetan eta kontratuaren xedeari dagokion obrentzako beharrezko dedikazioarekin mantenduko dira une oro, eta ezin izango dira baztertu zuzendaritza fakultatiboaren baimenik gabe. Izan ere, baztertzeko, aldez aurretik material horrek egikaritu behar zituen obra-unitateak bukatu direla justifikatu behar da.
- 4.- Aurreko paragrafoetan ezarritako betebeharrak obrak egikaritzeko baldintza bereziak dira, kontratua egikaritzeko esparruan egiaztatu beharko dira eta funtsezko izaera duten kontratu betebeharrak dira. Ondorioz, betetzen ez badira, diru-zigorak ezarri ahal izango dira (arau-haustearen larritasunaren proportziozkoak, eta kontratuaren aurrekontuaren gehienez % 10ekoa), eta arau-hauste errudunagatik kontratua eten ahal izango da, SPKLTBren 212.1 eta 223 f) artikuluen arabera. Zigor horiek kontratatari ordainketa oso edo partzial gisa ordaindu beharreko kopuruetatik edo garantiatik kenduko dira, SPKLTBren 212.8 artikulua arabera.

35.-ESKUESTEAK ETA BAIMENAK

Obrak zuzen egikaritzeko beharrezko baimen, lizentzia eta eskuesteak lortzea kontratistaren ardura izango da, eta bere kontura egin beharko du. Horretarako, erakunde eskudunen baldintzak eta preskripzioak jarraitu beharko ditu. Baimen, lizentzia edo eskueste horientatik tasak, fidantzak edo beste gastu batzuk eskatzen badira, kontratastak hartuko du horiek ordaintzeko eta gordetzeko ardura ere.

36.- ENTSEGUAK ETA PROBAK

- 1.- Lanen zuzendari fakultatiboak materialen eta obra-unitateen entseguak, probak eta azterketak egiaztatzea agindu dezake edozein unetan, egokia iruditzen bazaio.
- 2.- Obra zuzendaritzak erabili beharreko materialak aukeratu ahal izango ditu bere kabuz, edo ordezkari baten bidez, baita material horien prestakuntza eta entsegua ikusi ere.
- 3.- Obra zuzendaritzak edo bere langile kolaboratzaileek *in situ* egin beharreko entseguen kokapena zehaztuko dute, baita laborategian entsegua egiteko jaso behar diren laginena ere.
- 4.- Kontratasta arduratuko da kontzeptu horretatik sortzen diren gastuekin, gehienez kontrataren prezioaren % 1eraino. Hala ere, obraren kalitatean eta egikaritzean akatsak izanagatik kontrolak egin behar badira, kontrol horien gastu guztiak kontratistaren ardurapean izango dira, alegia, ez dute lehen aipatutako mugarik izango.
- 5.- Gainera, obrak bukatzen direnean, eta harrera egin baino lehen, beharrezko probak egingo dira kontratistaren ardurapean, Administrazio Klausula Tekniko Partikularren Pleguan ezarritakoaren arabera.

37.-AFEKTAZIOAK ZIRKULAZIOARI



Edozein kasutan ere, kontratistak Trafikoko Gipuzkoako Lurralde Bulegoari jakinarazi beharko dio obren ondorioz ibilgailuen trafikoan afektazioak edo etenak baldin badaude.

38.-SEINALEZTAPENAK

- 1.- Kontratistak bere kontura eta bere kostuz instalatu beharko ditu beharrezko seinaleak obren sarbidea eta lan-eremuko eta inguruko trafikoaren arauketa adierazteko, baita arriskua egon daitekeen puntu guztiak edo obregatik eragina izan duten puntuak adierazteko ere. Horri dagokionez, seinaleztapen, balizaje, babes, garbiketa eta hirigunetik kanpoko bideetan obra finkoak bukatzeari buruzko 1987ko abuztuaren 31ko Ministro Aginduan xedatutakoa beteko da.
 - 2.- Seinaleztapenak euskaraz eta gaztelaniaz egingo dira. Betebehar linguistiko hori betetzen ez bada, SPKLTBren 212. artikuluan aurreikusitako zigorra ezarriko da, kontratuaren xedeari dagokion prestazioa akatsekin egikaritzeagatik. Zigorra arau-haustearen larritasunaren arabera izango da, proportzionaltasun irizpide baten arabera (Ikus 32. klausula).
 - 3.- Kontratistak, gainera, obren zuzendaritza fakultatiboaren aldetik idatziz jasoko dituen agindu guztiak beteko ditu, seinale osagarriak instalatzearen eta dagoeneko instalatuta daudenak aldatzearen inguruan.
 - 4.- Ez da inolako obrarik hasiko Obra zuzendaritzak dagokion seinaleztapena onartu arte. Obra egiten ari diren bitartean Obrako zuzendaritzak uste badu seinaleztapenak araudiaren arabera preskripzioak ez dituela betetzen, zuzendaritza horrek lanak geldiarazi ditzake, seinaleztapena zuzentzen dena arte.
- Neurri horiengatik obretan sor daitezkeen atzerapenak kontratistari egotzi ahal izango dira.
- 5.- Zirkulazioaren segurtasunari eragin ahal dion edozein gertakari behar bezala seinaleztatuko da eta jakinaraziko zaie errepideko erabiltzaileei. Era berean, errepidearen erabilpena Obra zuzendaritzak erabakitzen duenaren arabera ere muga daiteke.

39.-ERAGINPEKO ZERBITZUAK

- 1.- Eraginpeko zerbitzuak berriz jartzea kontratu barruan sartzen da, proiektuaren beraren aurreikuspenen arabera, eta obran ager daitezkeen zerbitzu guztietara hedatu ahal izango da, kontratuan aurreikusi egon arren ere.
- 2.- Hortik kanpo geratzen dira Iberdrola, S.A., Telefónica, S.A., Euskaltel, S.A. eta Correos y Telégrafos, S.A. enpresei zein gas enpresa-hornitzaileei dagokien zerbitzuak; izan ere, horiek beraien kabuz egingo dituzte dagokien proiektuak eta obrak. Hortik kanpo geratzen dira, baita ere, Administrazioak titularren beraien edo hirugarrenen bidez kudeatu nahiko litzuzkeenak.
- 3.- eraginpeko zerbitzuak kendu eta berriz ere jartzen direnean, kontratistak bere lanen programa egokitu eta koordinatu beharko du, bai kontratu barruan sartzen diren zerbitzuak zein aipatu enpresen zerbitzuak badira ere.
- 4.- Kontratistak zerbitzuak berriz jartzeko ardura hartzen duenean, lanak Proiektuari dagozkion obra-unitateen bidez ordainduko dira, edo, horrelakorik egongo ez balitz, SPKLTBn eta HAKLEOn kontraesanezko modura legalki ezarritako prozeduraren arabera jarritako prezio berrien bidez.
- 5.- Obra-unitate konbentzionaletan xehakutzen ez diren jarduera bereziak edo ohiz kanpokoak direnez, GHK, SAUK hirugarrenen bidez fakturatzeko, kontratistaren bidez ordaintzeko eta GHK, SAUK dirua itzultzeko aukera gordetzen du. Guzti hori plegu honen 48. klausulan aurreikusitakoaren arabera.

40.- KALTE-GALERAK HIRUGARRENEI

1.- Kontratatik arreta handiarekin jokatu du hirugarrenei kalteak eta galerak saihesteko. Obrak egikaritzearen ondorioz zuzenean edo zeharka sor daitezkeenak bere ardurapean egongo dira soilik.

Kontratatik, kontratua egikaritzeko egin behar diren eragiketen ondorioz, bere kabuz, bere langileen bidez edo kontratistaren menpe dauden bitarteko bidez sor ditzakeen kalte-galera guztiak ordaindu beharko dizkie, nahitaez, hirugarrenei. Kalte-galera horiek GHK, SAUren berehalako agindu zuzen baten ondorioz sortzen direnean, hura izango da kalte horien arduraduna, legetan adierazitako mugen barruan.

Kontratua enpresa bat baino gehiagorekin egikaritzeko balitz modu partekatuan, denek erantzungo dute modu solidarioan klausula honetan aipatzen diren arduren aurrean.

2.- Enpresa esleipendunak aseguru kontratu bat izango du une oro kontratua indarrean dagoen bitartean, hirugarrenei -bai pertsonari, zein gauzei- egindako kalte-galeren aurrean erantzuteko, baita GHK, SAUri edo horren menpe dauden langileei sortutako kalteei ere. Aseguru horrek plegu honen hasieran agertzen den "ezaugarrien koadroa"-n ezarritako zenbatekoaren arabera estaldura minimoa izango du.

3.- Poliza hori kontratuak irauten duen denboraldi osoan (luzapenak barne, horrela dagokionean) mantenduko da indarrean, gutxienez, baita bermeak irauten duen denboraldian ere (luzapenak barne, horrela dagokionean).

41.- KALTEAK OBRETAN

1.- Kontratatik, bere jarduera garatzeko nahitaez izan behar dituen beste aseguru gain, egindako obrek eta obrak egiten ari direnean izan ditzaketen kalteak estalduko dizkion aseguru bat izan beharko du nahitaez, non GHK, SAU eta Hondakinen Kudeaketa "ezaugarrien koadroa"-n ezartzen den kopuruarekin jaso beharko dituen, gutxienez. Ezbeharren bat gertatuz gero, onuradun bezala kontratazio organoa agertu beharko da. Ondoko hauek izango dira estaldurak:

a) Sute, tximista, leherketa, lapurreta, espoliazioa, inpaktu, trebetasun-falta, arduragabekeria, ekimen bandalikoak eta asmo gaiztoko ekimenak, naturaren arriskuen edota izendatu gabeko beste edozein arriskuren ondorioz sortutako kalte-galera materialak.

b) Ondokoetatik sortutako berme gehigarriak:

- Diseinuaren akatsa, fabrikatzailearen arriskua.
- Ohiz kanpoko orduen gastuak, hondakinak kentzea, eraispena, agintarietako hartutako neurriak, etab.
- Dagoeneko existitzen diren ondasunei kalteak egin, sabotajea.
- Greba, matxinada eta astinaldi zibila.
- Kalteak ingurumenean
- **Langileen lan istripuak eta Gizarte Segurantzak**, indarrean dagoen araudiaren arabera.

2.- Eraikuntza garaian edozein arrazoiengatik sortutako edozein galera edo kalte aseguratuko da, baita garai horretan edo ondoren obra-kontratuaren hitzartutako betebeharrak zuzen betetzeko egindako lanen ondorioz sortutakoak ere.

3.- Poliza hori kontratuak irauten duen denboraldi osoan (luzapenak barne, horrela dagokionean) mantenduko da indarrean, gutxienez, baita bermeak irauten duen denboraldian ere (luzapenak barne, horrela dagokionean).

4.- Obra hartzen denean, poliza jasotzen den unetik zenbatzen hasi eta urtebete gehiagoko indarraldia duela egiaztatu beharko da, baita dagokion prima erabat ordainduta dagoela ere.

42.-EPEAK ETA ATZERAPEN-ZIGORRAK BETETZEA

- 1.- Obrak egikaritu, erabat bukatu eta GHK, SAUren eskura geratu behar dira, plegu honen 24. eta 25. klausuletan aurreikusitakoaren arabera ezarritako kontratu-epean.
- 2.- Obren kontratua egikaritzen hasiko da zuinketa-egiaztapenaren aktarekin (23. klausula), zein formalizatzen den egunetik zenbatzen hasi eta gehienez hurrengo 10 egunetan egingo den, justifikatutako salbuespeneko kasuak salbu.
- 3.- Zuinketa-egiaztatze akta sinatu eta biharamunean hasiko da epeen zenbaketa, obrak hasteko baimena lortu ondoren. Baimen hori zuzendari fakultatiboak emango du obren zuinketa-egiaztapen ekitaldian bertan.

Hala ere, zuinketa-egiaztapenaren emaitzaren ondorioz obrak hasteko nahitaezko lursailen erabilgarritasuna egiaztatu gabe geratzen bada, edo obren zuzendariak proiektuan jasotako obrak aldatu egin beharko lireratekeela uste izango balu, obren hasiera bertan behera geratuko da, eta HAKLEOren 139.4, 140.2 eta 141 artikuluetan aurreikusitakoaren arabera jardungo da.
- Era berean, obren hasiera bertan behera geratuko da kontratistak zuinketa-egiaztapenean erreparoa agertuko balu, eta ondorioz, aurreko paragrafoan ezarritakoaren arabera jardungo da. Hala ere, Kontratazio Organoaren ustez erreparoririk funsgabeak izango balira, obren hasiera ez da bertan behera geratuko, eta ondorioz, obrak hasteko akordio berririk ez da ebatzi behar izango, ezta egikaritzeko epearen zenbaketa aldatu beharko ere.
- 4.- Kontratistak behar baino azkarrago lan egin ahal izango du obrak kontratuaren epeetan egikaritzeko, GHK,SAUk desegokia izango litzatekeela uste izan ez ezik. Hala ere, kontratistak ez du izango eskubiderik dagokion urtesarian esleitutakoa baino prezio handiagoa jasotzeko, eta kopuru hori gainditzen duten ziurtagiriak ordaindu egingo dira, hurrengo urtesaria hasi ondoren.
- 5.- Obren ezaugarriak kontuan izanik, funtsezkoa da kontratistak epeak bete ditzan. Ondorioz, kontratistak, berari leporatu daitezkeen arrazoiengatik, epe osoa edo partziala betetzerakoan atzeratu izan balitz, edo epeak betetzerakoan atzerapena izanagatik epe osoa betetzea ezinezkoa dela arrazoitzen bada, GHK, SAUk, SPKLTBren 212. artikuluan ezarritako moduan eta baldintzetan, erabaki dezake bai kontratua etetea edo plegu honen "ezaugarrien koadroa"-n aipatzen diren zigorrak ezartzea.
- 6.- Kontratuak prezioak berrikusteko klausula izango balu, eta epea ez betetzearen ardura kontratistarena izango balitz, SPKLTBren 93. artikuluan ezarritako moduaren eta baldintzen arabera jardungo da.
- 7.- Bermea edo zigorren zenbatekoak galtzeak ez du baztertzen GHK, SAUk eskubiderik ez duenik kontratistak atzerapenagatik sortutako kalte eta galeren ordaina jasotzeko.
- 8.- Atzerapena kontratistaren ardurapean egongo balitz, SPKLTBren 213.2 artikuluan ezarritakoa beteko da.
- 9.- Edozein kasutan ere, kontratista berandutzeak ez du esan nahiko GHK,SAUk aldeztetik aurretik interpelazioa edo agindua eman beharko zukeenik.
- 10.- Atzerapenengatik sortutako zigorren zenbatekoa ziurtagirietatik, eta dagokionean, bermetik, kenduko da, SPKLTBren 212. artikuluan ezarritakoaren arabera.
- 11.- Epe partzialak ez betetzeagatik emandako zigorrak kontratistari ordaindu ahal izango zaizkio, berriz ere, behar bezala berreskuratzen bada obraren ondorengo faseetan. Ordainketa hori atzerapena zuzendu dela egiaztatzen den garaiari dagokion ziurtagirian gauzatuko da.

43.-BESTE ZIGOR BATZUK

Kontratatik kontratuaren xedea akatsekin egingo balu, eskaintzak balioztatzen oinarri bezala erabili ziren irizpideetako bat beteko ez balu, edo berari leporatzeko arrazoiengatik, kontratua ezarritako zerbitzuak partzialki egikaritu ez balitu, Kontratazio Organoak arau-haustearen larritasunaren proportzioan diru-zigorra ezarri ahal izango du, gehienez kontratuaren aurrekontuaren % 10eko kopuruarekin.

44.-KONTRATUA LAGATZEA

- 1.- Esleipendunak hirugarren bati laga ahal dizkio kontratutik sortzen diren eskubideak eta betebeharrak, kontratuaren esleipenean lagatzailearen ezaugarri teknikoak edo pertsonalak funtsezkoak izan ez badira.
- 2.- Esleipendunak eskubideak eta betebeharrak hirugarrenei laga ahal izateko, ondoko eskakizunak bete beharko dira:
 - a) Kontratazio-organoak lagapena berariaz eta aldez aurretik baimenduko du.
 - b) Lagatzaileak kontratuaren % 20 egikarituta izan beharko du, gutxienez.
 - c) Lagapen-hartzaileak Administrazioarekin kontratatzen ahalmena, eta kaudimen galdagarria izango ditu. Eskakizun hori lagatzaileari eskatu bazaio, behar bezala sailkatuta egon behar da, eta ezin izango da kontratatzea debekatzeko kausa batetan sartuta egon.
 - d) Lagapena formalizatuko da esleipendunaren eta lagapen-hartzailearen artean, eskritura publikoan.
- 3.- Lagapen-hartzailea subrogatuta geratuko da, lagatzaileari egokituko litzaizkiokeen eskubide eta betebeharrak guztietan.

45.-AZPIKONTRATAZIOA

- 1.- Kontratatik hirugarrenekin hitzartu ahal izango du prestazioa partzialki egiteko.
- 2.- Azpikontratuak egiteko ondoko eskakizunak bete beharko dira:
 - a) Lizitatuak eskaintzan adierazi beharko dute (Ikus 10. klausula) kontratuaren zein zati aurreikusten duten azpikontratatzeko, eta kontratua gauzatzeko eskatuko zaien azpikontratisten izena edo enpresaren izena adierazi beharko dute, kaudimen profesional edo teknikoaren baldintzei erreferentzia eginez definitutako dena.
 - b) Edozein kasutan ere, esleipendunak GHK, SAUri jakinarazi beharko dio, aldez aurretik eta idatziz, azpikontratuak egiteko asmoa duela. Prestazioaren zein zati azpikontratatu nahi duen eta azpikontratistaren identitatea adierazi beharko dio, eta eskuragarri dituen elementu teknikoaren eta pertsonalen, zein esperientziaren arabera, prestazio horiek egikaritzeko gaitasuna behar bezainbeste frogatu beharko dio. Azpikontratatik azpikontratazioaren xede den kontratu zatia egiteko sailkapen egokia izango balu, hori jakinaraztea besterik ez du izango kontratatik azpikontratistaren gaitasuna ez frogatu behar izateko. Azpikontratistaren gaitasuna azpikontratua egin eta berehala egiazta ahal izango da, larrialdi edo presazko neurriak hartzea eskatzen duen egoera bati erantzuteko beharrezkoa izango balitz, eta horrela, aski frogatuko litzateke.

Proposatutako azpikontratista SPKLTBren 60. artikuluan aurreikusten diren kontratatzen gaitasun gabetze eta debekuan erori gabe dagoela egiaztatzen, kontratatik azpikontratazioari dagokion dokumentazioarekin batera, azpikontratatik sinatutako aitortzen arduratsu bat gehitu beharko du, nahitaez.

2014 UZT. 24

Aprobado por: Consejo de Administración.

Hernani,

2014 UZT. 24

Idazkarak

- c) Azpikontratazio bakoitza egiterakoan, kontratistak, edozein kasutan ere, **Azpikontratazio Liburuan jasota utzi duen azpikontratazioa segurtasun eta osasun koordinatzaileari jakinarazi beharko dio.**
- d) Eskaintzan adierazitakoari egokitzen ez diren azpikontratuak –eskaintza horretan izendatutakoen aldean enpresari ezberdinekin egiten direlako, edo eskaintzan adierazitako prestazio zatien aldean, beste batzuei buruzkoak direlako– ezin izango dira egin jakinarazpena bideratu eta hogeit hamar egun natural igaro arte, eta b) letran aipatzen diren frogagiriak ematen direnera arte, aldezturik berariaz baimenduak izan ezik, eta beti ere, GHK, SAUk azpikontratu horien aurka dagoela epe horren barruan jakinarazten ez badu. Erregimen hori berdin ezarriko da azpikontratatistak eskaintzan identifikatuak izan balira beren profil profesionaleko deskribapenaren bidez.

Azpikontratuak kontratistaren ardurapean bukatu ahal izango dira, hogeit hamar egun naturaleko epea igarotzen utzi behar izanik gabe, larritasun edo presazko neurriak hartzea eskatzen duen egoera bati erantzuteko beharrezkoa bada, eta horrela aski justifikatzen bada.

- e) Ezkutuko edo isilpeko izaera duten kontratuetan, edo lege edo araudien xedapenen arabera segurtasun neurri bereziekin egikaritu behar diren kontratuetan, edo Estatuko segurtasunaren funtsezko interesen babesak horrela eskatzen duenean, azpikontratazioak Kontratazio Organoaren berariazko baimena behar izango du beti.
- f) Esleipendunak hirugarrenekin azpikontratatzen dituen prestazio partzialak ezin izango dira Ezaugarrien Koadroan ezartzen den ehunekoa baino handiago izan.

Ehuneko maximo hori zenbatzeko, ez dira kontuan izango kontratista nagusiari lotutako enprekin bukatutako azpikontratuak. Enpresa horiek Merkataritzako Kodearen 42. artikuluan aurreikusitako suposizioetako batean daudenak izango dira.

3.- Aurreko atalean azpikontratazioa egiteko ezarritako baldintzak betetzen ez badira, edo azpikontratatistaren gaitasuna eta larrialdi, edo azpikontratazioa presazko egiten duen egoera zehazten duten baldintzak egiaztatzen ez bada, azpikontratuaren zenbatekoaren % 50erainoko zigorra ezarri ahal izango zaio kontratistari.

4.- Azpikontratatistek bakarrik kontratista nagusiaren aurrean bete beharko dituzte obligazioak, eta ondorioz, azken horrek hartuko du GHK, SAUren aurrean kontratua egikaritzeko ardura guztia, administrazio klausula partikularren pleguei eta kontratuaren baldintzei hertsiki jarraituz.


GHK, SAUk SPKLTBren 227. artikulua 2. ataleko b) eta c) letrak aipatzen dituzten komunikazioei jarraiki egindako azpikontratuaren inguruan jakin dezakeenak, edo atal horren d) letran aurreikusten den suposizioan eman dezakeen baimenak ez diote kontratista nagusiari berariaz duen ardura kenduko.

5.- Kontratistak inola ere ezin izango du hitzartu kontratuaren egikaritze partziala ordenamendu juridikoaren arabera kontratua egiteko gaitasunik ez duten pertsonekin, eta SPKLTBren 60. artikulua suposizioetako batean daudenekin.

6.- Kontratistak azpikontratazioa langileen ordezkariari jakinarazi beharko die, laneko legeriaren arabera.

7.- Azpikontratatistek egin beharreko ordainketa SPKLTBren 228. artikuluan, eta merkataritza-eragiketetan berankortasunaren aurkako neurriak ezartzen dituen abenduaren 29ko 3/2004 Legea aldatu zuen uztailaren 5eko 15/2010 Legearen hirugarren Xedapen Iragankorrean ezarritakora egokitu beharko da.

8.- Aurreko 3. paragrafoan ezarritakoari kalterik egin gabe, aurreko paragrafoetan ezarritako betebeharrak obrak egikaritzeko baldintza bereziak dira, obrak egikaritzeko esparruan egiaztatu beharko dira eta funtsezko izaera duten kontratu betebeharrak dira. Ondorioz, betetzen ez badira, diru-zigorrak ezarri ahal izango dira (arau-haustearen larritasunaren proportziozkoak, eta kontratuaren aurrekontuaren gehienez % 10ekoa), eta arau-hauste errudunagatik kontratua eten egin ahal izango da, SPKLTBren 212.1 eta 223 f)



artikuluen arabera. Zigor horiek kontratistari ordainketa oso edo partzial gisa ordaindu beharreko kopuruetatik edo garantiatik kenduko dira, SPKLTBren 212.8 artikulua arabera.

46.-OBREN KONTRATUA ALDATZEA

1.- Kontratu hau interes publikoko arrazoiengatik aldatu ahal izango da bakarrik, SPKLTBren I. liburuako V. tituluaren aurreikusten diren kasuetan eta moduan, eta beti ere kontratistari audientzia eginez.

Kasu horietan, kontratistek Kontratazio Organoak adostutako aldaketak nahitaez bete beharko dituzte.

2.- Proiektua egikaritzen ari den bitartean, Zuzendaritza Fakultatiboak ezin izango du aldaketarik sartu obra-unitateetan, GHK, SAUren alde aurreko baimenik gabe. Era berean, proiektuaren dokumentuen artean desadostasunik egongo balitz, ezin izango du inolako erabakirik ere hartu, erabaki horrek onartutako proiektuaren inguruan aldaketak sartzea ekarriko balu.

3.- GHK, SAUren alde aurreko baimenik gabe kontratistak obra-unitateetan aldaketak egiteak ez dio inolako betebeharririk sortuko GHK, SAUri, nahiz eta aldaketa horiek Zuzendaritza Fakultatiboaren agindupean egin. Gainera, kontratistak eragina izan duten obrak berregin beharko ditu, eta ez du ordainketa eskubiderik izango, eta guzti horrek ez dio kalterik egingo GHK, SAUk biei erantzukizunak eskatu ahal izateari, bakoitzak bere kontratua bete dezan.

4.- Ezaugarrien Koadroan aurreikusten diren SPKLTBren Igo liburuaren 219, 234 artikuluetan eta V. tituluaren ezarritakoaren arabera adosten diren obraren kontratuaren aldaketak nahitaez burutu behar ditu kontratistak.

Aldaketak obra-unitateak kentzea edo murriztea suposatuko balu, kontratistak ez du inolako ordainik eskatzeko eskubiderik izango.

5.- Aldaketa horien ondorioz proiektuan aurreikusten ez diren obra-unitateak sartzen badira, edo obra-unitate horien ezaugarriak proiektuan ezarritakoen aldean ezberdinak badira, GHK, SAUk ezarriko ditu obra-unitate horiei ezarri beharreko prezioak, gutxienez hiru egun balioduneko epean kontratistari audientzia egin ondoren. Horrek ezarritako prezioak onartuko ez balitu, Kontratazio Organoak beste enpresa bati kontratu ahal izango dizkio obra-unitateak, eta ezarritako prezio berdinean, edo zuzenean egikaritu ahal izango ditu.

6.- Zuzendaritza Fakultatiboak uste badu proiektuan aldaketa bat egin behar dela, Kontratazio Organoari baimena eskatuko dio dagokion txostena egiten hasteko, eta presazko izaerarekin gauzatuko da SPKLTBren 234.3. artikuluan aurreikusitako jarduerekin.

7.- Kontratuaren aldaketak SPKLTBren 156. artikuluan ezarritakoaren arabera formalizatu behar dira. Horretarako, alderdi biek hasierako kontratuari gehitu beharreko dagokion eranskina sinatu beharko dute.


47.-OBRAK ETETEA

1.- GHK, SAUk kontratua etetea erabakiko balu, akta bat egingo da, non hori sortu duten arrazoiak jasoko diren, eta hori zein egoeratan egin den. Aipatu akta sinatu beharko dute Kontratazio Organoko ordezkari batek, kontratistak eta obrako zuzendariak. Aktari erantsi beharko zaizkio egikaritutako obraren neurketa eta obra-tokian bildu diren etendako obraren zatian edo zatietan bakarrik erabil daitezkeen materialak.

2.- Obra etetea adostu ondoren, GHK, SAUk kontratistari ordainduko dizkio horrek hain zuzen ere jasandako kalteak eta galerak.

48.- NEURKETAK, BALORAZIOA ETA KONTUKO ABONUAK

1.- GHK, SAUren zerbitzu teknikoek (Obra Zuzendaritza) egikaritutako obra-unitateen neurketa egingo dute hilero.



Ezkutuan geratu behar diren dimentsioak edo ezaugarriak dituzten obrei edo obra zatiei dagokienez, kontratistak nahitaez ohartarazi behar du zuzendaritza alde aurretik, horrek beharrezko neurketak egin eta datuak har ditzan, dimentsioak eta ezaugarriak definituko dituzten planoak eginez. Plano horiei onespina kontratistak edo bere delegatuak emango die.

Aldez aurreko ohartarazpenik egon ez bada –eta horrelakorik egon den edo ez kontratistak egiaztatu beharko du–, kontratistak GHK,SAUren erabakiak onartu beharko ditu, nahitaez, gai horren inguruan.

2.- Neurketa hori oinarri hartuta idatziko da dagokion zerrenda jatorrizkoaren arabera balioztatuta, eta dagokion aleko prezioak ezarritz.

Balioztatutako zerrenda bideratzearekin batera, obraren zuzendaritzak ale bat bidaliko dio kontratistari onespina edo eragozpena ager dezan. Izan ere, kontratistak egokiak iruditzen zaizkion alegazioak egin ditzake aipatu dokumentua jaso eta gehienez hurrengo hamar egun baliodunetan.

Epe hori igaro ondoren, kontratistak alegaziorik egin izan ez balu, balioztatutako zerrendari onespina eman zaiola ulertuko da. Aldiz, eta kontratistaren alegazio guztiak edo batzuk onartuz gero, alegazio horiek kontuan izango dira hurrengo balioztatutako zerrenda idazterakoan, edo, dagokionean, azkeneko ziurtagirian edo kontratuaren likidazioan.

3.- Egikaritutako obren zenbatekoa kontratistari egiaztatuko eta ordainduko zaio hiler, obretako zuzendari fakultatiboak igorritako ziurtagirien bidez.

4.- Obren ziurtagirien ordainketa fakturaren truke egingo da, eta faktura hori indarrean dagoen araudiaren arabera igorriko da.

5.- GHK, SAUk prezio hori indarrean dagoen lege-eparen barruan ordaindu beharko du, nahitaez, eta atzeratuko balitz, abenduaren 29ko 3/2004 Legean aurreikusitako baldintzen arabera berandutzako interesak eta kobratzearen kostuegatik sortutako kalteak ordaindu beharko dizkio kontratistari, epea betetzen den egunetik aurrera zenbatzen hasita.

Hala ere, kontratuan ezarri diren urtesarien zenbatekoa gainditzen duten ziurtagiriak egiten badira, espedizio datatik aurrera legalki aurreikusitako epea ez da kontuan hartuko, baizik eta hitzartutako baldintzen eta onartutako lan-programaren arabera egiaztagiri horiek egin beharko lirakeen ondorengo data.

6.- Aurrekontuan jasotako gora jotzeko partidak, osorik ordaintzekoak direla berariaz izendatu ezik, eta edozein kontzeptu dutelarik –titulua edo izendapena–, egiaztatu egin beharko dira, eta Proiektuaren aurrekontuko obra-unitateen edo partidetatik kendutako unitateen bidez ordainduko dira, HAKLEOren 154.2 artikuluan ezartzen diren prezio berriei buruzko aurreikuspena azken orduan bakarrik kontuan hartuz.

7.- Egiaztatu beharreko gora jotzeko partidak ordaintzeko, eta jarduerak ez badute uzten obra-unitateak ezartzen, GHK, SAUk kontuan har dezake hirugarrenek fakturatzeko aukera, alde aurretik obretako zuzendaritza fakultatiboak baimena eman eta lagundu ondoren. Fakturatutako zenbateko likidoa kontratistak ordainduko du, eta GHK,SAUk dirua itzuliko du, hurrengo hilean igortzen duen obraren ziurtagiriaren barruan. Kopuru hori % 13 handituko da gastu orokor gisa, eta ez zaio ezarriko beste gehikuntzarik, ezta esleipenaren behetik ere.

8.- Ezin izango da inolako ziurtagiririk igorri, eta ondorioz, ezin izango da inolako ordainketarik egin, kontratua formalizatu arte.

9.- Kontratistak hirugarren bati laga ahal izango dio, legalki ezarritako edozein bideren bidez, kontratuaren prezioa kobratzeko eskubidea, Baina lagapen horrek eragina izan dezan, eta GHK, SAUk ordaintzeko agindua lagapen-hartzailearen alde igorri dezan, azken horri lagapen akordioa jakinarazi behar zaio frogatzeko moduan.

Obra-zuzendaritzak obra-egiaztagiri bakoitzari % 5eko atxikipena ezarriko dio instalazioak hartzen eta martxan jartzen direnera arte, eta hori obren funtzionamendu probak beroan hartzen direnean egingo da.

49.- KONTURAKO ABONUAK PRESTATZE-ERAGIKETENGATIK

Kontratu honetan ez da konturako abonurik aurreikusten.

50.- OBRAK HARTZEA ETA INSTALAZIOA MARTXAN JARTZEA

1.- Kontratatistak kontratu osoa bete duela ulertuko da horrek kontratuaren xede osoa bete duenean, kontratuaren baldintzen arabera, eta GHK, SAUren pozerako.

2.- Kontratatutako obrak eta instalazioak bukatu eta gero, indarrean dagoen legedian aurreikusitakoaren arabera hartu eta likidatuko dira, dagozkion entseguak egin ondoren. Obrak egoera onean eta aurreikusitako preskripzioen arabera badaude, eta instalazioak kontratua zuzentzen duen dokumentazio teknikoan ezarritakoaren arabera martxan jarri badira, GHK, SAUko ordezkariak obrak hartutzat emango ditu, eta dagokion akta egingo da, eta horrela badagokio, bermearen epea hasiko da.

Aldiz, obrak edota instalazioak hartzeko egoeran ez badaude, aktak horrela jasoko du, obren zuzendariak antzemandako akatsak adieraziko ditu, eta argibide zehatzak xehatuko ditu akats horiek zuzentzeko. Epe hori igaro ondoren kontratatistak ez balitu zuzenketa horiek egin, luzatu ezineko beste epe berri bat eman ahalko zaio, edo kontratua eten egin ahalko da.

3.- Lanak egin bitartean egiaztatutako entsegu eta azterketa gutxi gorabehera zehatzen helburua da soilik obrak hartzen direnerako aurrekariak ezartzea. Ondorioz, obraren harrera baino lehen material edo obra-unitateak edozein modutara hartzen badira ere, kontratatistak onartezinak diren obra-unitateak konpondu edo berriz jarri beharko ditu, nahitaez, obra hartzerakoan akta formalizatu arte.

4.- Hartzea egiaztatu baino lehen, eta ahal den guztietan, entseguak egiteko laginak hartuko dira, eta *in-situ* egikaritutakoa egokia den egiaztatuko da, obraren zuzendaritzak emandako argibideen arabera.

5.- Materialak eta obra-unitateak onartzeko edo baztertzeko irizpidea egindako proben eta entseguen emaitzetan oinarrituko da, eta horiek behar bezainbeste errepikatuko dira emaitza onak lortu arte. Proba eta entsegu horien guztien ondorioz sortzen diren gastuak kontratatistari edo kontratazio-organismoari leporatu ahal izango zaizkio, Administrazio Klausula Partikularren Pleguko 36. klausulan ezartzen denaren arabera.

6.- Obrak eta instalazioak hartzeko, kontratatistak obrek eragindako eremuak garbitu beharko ditu, eta seinaleztapen, eta enpresako eta obraren gainerako publizitate guztia kendu, eta hasieran zeuden bezala utzi beharko ditu, eremu horren hasierako egoerak aldatarik izan balu.

7.- Obra osotik at, modu independentean erabili ahal diren obren edo instalazioen elementuak partzialki hartu ahal izango dira, Obren Zuzendariaren irizpideen arabera, beti ere.

8.- Txostenean behar bezala arrazoitutako ohiz kanpoko interes publikoko arrazoiengatik kontratazio-organismoak obrak okupatzea edo erabilera publikoaren zerbitzura jartzea erabakitzen duen bakoitzean, okupazio edo zerbitzuate hori egiten hasten den unetik aurrera hartze-ekitaldiaren berezko eraginak eta ondorioak sortuko dira, HAKLEOren 168. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, nahiz eta hartze-ekitaldi formala oraindik egin ez izan.

51.- EPELEKO KONPOSTATZE-PLANTAREN ETA TRANSFERENTZIA-GUNEAREN OBRAK HARTZEKO PROZEDURA OBRAREN AZKEN ZIURTAGIRIA

Prozedura gauzatzeko ondoko prozesuak bete behar dira:


2014 UZT. 24

..... (s)lan onartua
Aprobado por Consejo de Administración.

Hernani,

2014 UZT. 24

Idazkaririk



- Obraren eta muntaketa bukaeraren akta
- Martxan jartzea
- Funtzionamendu eta bermeen probak
- Epeleko konpostatze-planta eta transferentzia-gunea behin-behinean onartzeko akta
- Behin betiko onarpen akta

OBRAREN ETA MUNTAKETA BUKAERAREN AKTA

Eraikinei eta obra zibilari berez dagokien jardueraz gain, kontratistak obrako ekipo, instalazio eta sistema guztien ardura hartuko du. Muntaketa bukatu egin dela ulertuko da Konpostatze Planta, Transferentzia gunea eta elementu komunak edo horietako eremu bat osatzen duten obra, instalazio, ekipo eta sistema guztiak dagozkion plano eta zehaztapenen arabera eraiki eta instalatu direnean, eta horietan guztietan martxan jarri aurreko nahitaezko probak eta jarduerak egin direnean.

Obraren eta Muntaketa Bukaeraren Akta sinatzeko prozedura ondokoa izango da:

- Eraikuntza eta muntaketa obrak bukatu baino gutxienez hiru (3) hilabete lehenago, Konpostatze Plantarako, Transferentzia Gunerako eta elementu komunitararako Proben Protokoloa bat aurkeztuko dio kontratistak GHKri onar dezan, non haiek martxan jarri baino lehen egiaztapen eta entsegu erregimen guztia zehatz-mehatz definituko den.
- GHK-k aurkeztutako Protokoloak aldaketak egin ahal izango dizkie, funtsezkoak iruditzen zaizkion ezaugarriak jasotzeko.
- Edozein kasutan ere, Proben Protokoloa nahikoa izan behar da sistemaren ekipo eta elementuek zuzen funtzionatzen dutela egiaztatzeko.
- Obra eta muntaketa lanak egin ondoren, kontratistak GHKri jakinaraziko dio bukatu egin direla.
 - Kontratistak GHKri emango dio Obra Bukaerako Dokumentazioa. Obrak egikaritzera kontratistak egin eta eman beharko duen dokumentazioari kalterik egin gabe, eraikuntza fasearen bukaeran eraikuntza-fasean sortutako dokumentazio tekniko eta plano guztien kopia bat emango dio kontratistak GHKri, *As Built* dokumentazio gisa.
 - Kontratistak Konpostatze Plantaren, Transferentzia Gunearen eta elementu komunaren (edo horien zati baten) Proben Protokoloen zerrendak, eta obra eta muntaketa bukaerako azterketak beteko ditu, kontratua bete izanaren egiaztapen bezala, eta kontratistak proposatutako eta GHK-k onartutako prozedura eta plangintzen arabera. GHK edo Obra Zuzendaritza nahiko denbora aurretik ohartarazi beharko dira, entseguak egiteko saiora joan daitezten.
 - Obra Zuzendaritzak obraren eta instalazioen egoera egiaztatzeko txosten bat bidaliko dio GHKri.
 - GHK-k azterketa zerrendak egiaztatu eta onartuko ditu bidaltzen diren egunetik zenbatzen hasi eta hurrengo hamar (10) egunetan, eta orduan, Obra eta Muntaketa Bukaerako Akta egingo du, zehaztutako eraikuntza eta muntaketa lanak ondo bukatu direla ziurtatzeko. Akta hori Obra Zuzendariak, GHK-ko ordezkariak eta Kontratuaren Zuzendariak, kontratistaren ordezkari bezala, sinatuko dute.
 - Lanak kontratuaren dokumentuan aurreikusitakoaren arabera egin izan ez balira, baina GHKren ustez lan horiek ez balukete eragotziko martxan jartzeko proben hasiera, Muntaketaren Bukaerako Akta emango da, nahiz eta horri kalterik egin gabe, GHK-k antzemandako akatsak adieraziko dituen, eta horiek zuzentzeko epe bat ezarriko duen.
 - Epe hori bukatu ondoren kontratistak adierazitako akatsak zuzendu ez balitu, akta berria egingo da, eta GHK-k hirugarrenei eska ahal izango die akatsak zuzentzeko kontratistaren kargura. Kontratistak ordaindu beharko ditu GHK-k aurrekoagatik jasan beharreko kostuak, GHK-k horretarako adierazten dion hamar egun (10) baliodunen epean. GHK-k zenbateko horiek kobratzeko ahalmena izango du une oro, kontratistak eman eta bere ahalordean dauden banku-bermeetan, eta kontratu honen menpe kontratistari zordundutako kopuruetan, konpentsazio gisa.

MARTXAN JARTZEA

Obra eta Muntaketa Bukaerako Akta egin ondoren, Aktan jasotako instalazioak martxan jartzen hasiko dira.



2014 UZT. 24

Aprobado por Consejo de Administración.

Hernani,

2014 UZT. 24



Idazkariak,

Lan horiek kontratistak bere eskaintzan izendatutako Martxan Jartzeko Arduradunak gainbegiratu ditu. GHK-k Martxan Jartzeko Arduraduna berriaz onartu beharko du.

Ezin izango da instalazio oso baten karga martxan jarri, horretarako behar diren baimenak edo eskuesteak ez badituzte.

Martxan jartzearen hasiera eta bukaera kontratuaren zuzendariak, kontratistaren ordezkari gisa izango den martxan jartzeko arduradunak (kontratuaren zuzendaria bera ez bada), Obra Zuzendariak eta GHK-ko zuzendariak idatzitako eta sinatutako dokumentuetan erregistratuko dira.

Martxan jartzeko probak egingo dira hutsean (edo hotzean) eta kargarekin.

FUNTZIONAMENDU ETA BERMEEN PROBAK

Martxan jartzea egikaritu ondoren, kontratistak Funtzionamendu eta Bermeen Probak egingo ditu, non Konpostatze Planta eta Transferentzia-gunea eta elementu komunak osatzen duten instalazioen egokitasuna egiaztatuko duen, 10 egunetan jarraian martxan jarri, Xedapen Teknikoen Pleguan zehazten diren baldintzen arabera.

Kontratistak bere kontura egingo ditu Funtzionamendu eta Bermeen Probak, zeinak beharrezkoak izango diren Berme Teknikoetan ezarritako balioak betetzen direla egiaztatuko. Proba horiek GHK-k edo bere laguntzaile teknikoek gainbegiratu dituzte.

Kontratistak egiaztatuko beharko du Plantak gai direla baldintza egonkor eta seguruetan eta etengabe jarduteko, eta Xedapen Teknikoen Pleguan eta eskaintzan proposatutako balioak lortu dituztela.

GHK ados ez badago egindako probetan erabilitako metodoarekin edo haien emaitzekin, aditu independente bat izendatzeko eskubidea izango du, kontratistaren izenean proba horiek gauzatzeko. Proba horietako baten emaitzak ez balu beteko Berme Teknikoetan horien inguruan ezarritakoarekin, kontratistak ordainduko luke probaren kostua, GHK-k aurreko paragrafoan ezarritakoa aplikatzeko eskubideari kalterik egin gabe.

Martxan jartze eta berme-proben denboraldiko eragiketa eta mantentze kostuak kontratistaren ardurapean egongo dira, aurrekontuan jasotako kontzeptuak baitira. Martxan jartzearen eta bermeak egiaztatzearen denboraldia luzatuz gero sor daitezkeen kostuak kontratistari leporatzekoak badira, berak hartu beharko ditu bere gain kostu horiek, GHKri bestelako ondorioz sortu gabe.

EPELEKO KONPOSTATZE-PLANTA ETA TRANSFERENTZIA-GUNEA BEHIN-BEHINEAN ONARTZEKO AKTA

Funtzionamendu eta Bermeen Proba garaia igaro ondoren, eta GHK instalazioak ustiatzen hasi baino lehen, kontratistak "Epeleko Konpostatze Planta eta Transferentzia-gunea behin-behinean onartzeko Akta" lortu beharko du, eta horri jarraiki, instalazioen funtzionamendu zuzena egiaztatu beharko da, egindako proben argira.

Behin-behinean Onartzeko Akta sinatuko dute Martxan Jartzeko Arduradunak (hori Kontratuaren Zuzendaria ez denean), Kontratuaren Zuzendariak –kontratistaren ordezkari gisa–, GHK-k eta Obren Zuzendaritzak. Akta sinatzeak ez du kontratista aske utziko hori egikaritzeko akatsetatik edo ezkutuko akatsetatik sor daitezkeen arduetatik.

Behin-behineko Onarpenaren Akta egin ondoren, GHK instalazioak ustiatzen hasiko da, eta une horretatik aurrera, Plegu honen 52. klausulan aurreikusitako epea zenbatzen hasiko da.

Zuinketa-egiaztapen Akta eman eta zortzi hilabeteko epea bete ondoren Behin-behineko Onarpenaren Akta emango ez balitz kontratistari leporatu daitezkeen arrazoiengatik, Plegu honen 42. klausulan eta "Ezaugarrien Koadro"-n aurreikusitako zigorak sortuko dira, eta atzerapen hori 42. klausulan aurreikusitako muga baino handiagoa izango balitz, GHK-k kontratua eteteko ahalordea izango du, Plegu honen 42. klausulan adierazitakoaren arabera.

BEHIN BETIKO ONARPEN AKTA



Idazkariak

Plegu honen 52. atalean eta "Ezaugarrien Koadro"-n ezarritako bermeen epeak igaro ondoren, Behin betiko Onarpen Akta sinatuko da, zein kontratistaren, Obrako Zuzendariaren eta GHK-ko ordezkariak sinatuko duten.

OBRAREN AZKEN ZIURTAGIRIA

Obra hartzen den aktaren egunetik zenbatzen hasi eta hiru hilabeteko epe barruan, egikaritutako obren eta instalazioen azken ziurtagiria onartu beharko du kontratazio organoak. Egiaztagiri hori kontratistari ordainduko zaio, kontratuaren likidazioaren kontura.

52.-BERME-EPEA

1.- Kontratuaren xedea plegu honen hasieran agertzen den "ezaugarrien koadro"-ko berme-epera atxikiko da, obrak eta instalazioak hartzen diren egunetik zenbatzen hasita. Kontratistaren ardura izango da epe horretan obrak zaintzea eta garbi mantentzea, eta kontzeptu horregatik ez du inolako kalte-ordain edo ordainketarako eskubiderik izango.

Kontratistak berme-epe horretan zaintze-lanei arretarik jarriko ez balie, eta obra edo instalazioa arriskuan jarriko balu, GHK, SAUK kaltea saihesteko beharrezko lanak egingo ditu, kontratistaren kontura.

2.- Obraren zuzendari fakultatiboak, berme-epea bete aurreko hamabost egun naturaleko epe barruan, ofizioz edo kontratistak eskatuta, obren egoeraren inguruko txosten bat idatziko du. Txosten hori aldekoa balitz, kontratista ardura guztietatik aske geratuko da, SPKLTBren 236. artikuluan (ezkutuko akatsengatik ardurak) ezarritakotik izan ezik. Ondorioz, bermea bueltatu edo indargabetu egingo da, kontratua likidatu, eta dagokionean, egiteke dauden betebeharrak ordaindu beharko dira hirurogei egun naturalen epean.

Txostena aldekoa izango ez balitz, eta antzemandako akatsak obra egikaritzerakoan egindako akatsengatik izango balira, eta ez eraiki ondoren eman zaion erabilpenarengatik, zuzendari fakultatiboak beharrezko jarraibideak aginduko dizkio kontratistari bermearen epean eraikitakoa behar bezala konpon dezan. Horretarako, epe bat emango dio, eta epe horretan obrak zaintzeko arduraduna izaten jarraituko du, baina berme-epea luzatzeagatik ez du inolako kopururik jasotzeko eskubiderik izango.

3.- Harrera partziala egingo balitz, bermearen zati proportzionala bueltatu edo indargabetzeko baimena emango da, kontratistak alde aurretik eskaera egin ondoren.

53.- LIKIDAZIOA

1.- Bermearen epea igaro ondoren, edo aldiz, eraikitakoa konpondu ondoren, obrako zuzendariaren txostena aldekoa izango balitz, zuzendariak hilabeteko epean benetan egikaritutakoen proposamena egingo du hilabeteko epean, eta horiek baloratzeko oinarri bezala hartuko ditu kontratuan ezarritako baldintza ekonomikoak.

2.- Kontratistari likidazio proposamenaren berri emango zaio, hamar egun naturaleko epean adostasuna eman dezan, edo egokiak deritzon eragozpenak adieraz ditzan.

3.- Kontratistak erantzuna eman eta hurrengo bi hilabeteko epe barruan edo horretarako ezarritako epean, kontratazio organoak likidazioa onartu beharko du, eta dagokionean, hortik sortzen den saldoa ordaindu. Eta atzerapena izango balu, bi hilabeteko epe hori bete ondoren, atzerapen interesak eta kobratze kostuen ordainak ezarri ahal izango lirarteke, abenduaren 29ko 3/2004 Legean aurreikusitakoaren arabera, zeinaren bidez merkataritza eragiketetan berankortasunaren aurka borrokatzeko neurriak ezartzen diren.

54.-KONTRATUA ETETEA

1.- Kontratua eteteko arrazoiak SPKLTBren 223., 237. eta 238. artikuluetan daude ezarrita, arau horretan aurreikusten diren 225.. eta 239 artikuluetan aurreikusitako eraginekin, eta kontuan izanik, baita HAKLEOaren 109 eta hurrengo eta 172 artikuluetan ezarritakoa ere.

2.- Gainera, Kontratazio Organoak kontratua eten ahal izango du, obra egikaritzeko ezarritako epe osoa betetzen ez bada, edo epe osoa betetzea ezinezkoa egiten duten epe partzialak betetzen ez badira, eta beti ere Kontratazio Organoak SPKLTBren 212.4 artikuluan aipatzen diren zigorrak ezartzen ez baditu.

Hala ere, arauak ez betetzeagatik ezarritako zigorrak kontratuaren prezioaren % 5eko multiploak badira, Kontratazio Organoak kontratua eteteko ahalordea izango du, edo kontratua egikaritzen jarraitzea adostu dezake, zigor berriak ezarriz.

3.- Era berean, SPKLTBren 223. f) artikuluan ezarritakoaren babespean, kontratua eten ahal izango da plegu honetan edo kontratuan ezarritako kontratuaren funtsezko betebeharrak betetzen ez badira.

55.-OBRAK ONDASUNEN ETA ESKUBIDEEN INBENTARIO OROKORREAN SARTZEA

Obra inbentariagarriak, eta dagokionean, hobetzeko obrak ondasunen eta eskubideen inbentario orokorrean sartzeko, obraren dimentsioen eta ezaugarrien egoera deskribatzen duen dokumentua emango dio kontratistak Zuzendaritzari egikaritutako obraren harrera-ekitaldian, non egikaritutako obrak harrera unean nola dauden xehetasunez definituko diren.

56.-KONTRAESAN ETA ZEHAZTUGABETASUN SUPOSIZIOAK

Proiektua eta Administrazio Klausula Partikularren Plegua osatzen duten dokumentuen artean zehaztaperen ekonomiko-administratiboaren kontraesanak badaude, plegu honetako klausulak gailenduko dira.

Proiektua, pleguak edo kontratuaren beste edozein dokumentu interpretatzerakoan zalantzak edo desadostasunak egonez gero, Obra Zuzendaritzaren iritzia gailenduko da Kontratistarenaren aurrean.

Prozesu biologikoaren zehaztaperen teknologikoekin lotutako zehaztugabetasunik balego planoetan, aurrekontuan edo kontratuaren beste edozein dokumentutan, Kontratistak egin beharreko proposamen grafiko eta dokumental bati lotu beharko dira, eta Obra Zuzendaritzak onartu beharko ditu, ezer egikaritzen hasi baino lehen.

I. ERANSKINA PROPOSAMEN EREDUA

.....jn./and., adin nagusikoa,.....helbidearekin etaNAN zenbakiarekin,
.....(e)n izenean eta ordezkari gisa,egoitza sozialarekin eta
.....IFK zenbakiarekin, Tel. zkia. Fax zkia. edota
posta elektronikoa.....

AZALTZEN DU

- Lehenengoa.-** EPELEKO (BERGARA) KONPOSTATZE-PLANTAREN ETA HONDAKINEN TRANSFERENTZIA-GUNEAREN OBRAK ETA INSTALAZIOAK PROIEKTUA ezagutzen duela, baita horiek MARTXAN JARTZEKO eta obrak kontratatze Administrazio Klausula Partikularren Pleguak ere.
- Bigarrena.-** Bere ardurapean aitortzen duela enpresa lizitatzailerak ez dela indarrean dagoen legedian adierazitako Administrazioarekin kontratatze inolako debeku kasuetako bat, aipatu proiektuaren obrak egiteko gaitasun juridikoa eta baliabide nahiko dituela, eta kontratu honentzako eskatzen diren berriazko eskakizunak biltzen dituela.
- Hirugarrena.-** Esleipenduna izanez gero, eskaintzaren baldintzen arabera, eta onartutako Proiektuaren eta pleguen eskakizun eta baldintza guztiei hertsiki atxikirik egingo dituela obrak.
- Laugarrena.-** Eskaintza egiterakoan berriaz izan dituela kontuan enplegua babesteko, lan-baldintzen, lan-arrikuak saihesteko eta ingurumena babesteko gaietan indarrean dauden xedapenetatik sortzen diren betebeharrak, bereziki Gipuzkoako Eraikuntza eta Obra Publikoen Hitzarmen Kolektiboa (31-08-2007ko GAO), edo hori berrikusten duten ondorengo hitzarmen kolektiboak, horrela badagokio.
- Bosgarrena.-** Obrak egikaritzeko konpromisoa hartuko duela ondoko proposamenaren arabera ondoren adierazten den zenbatekoaren truke:

<u>PROPOSAMENA</u>	<u>ESKAINITZA EKONOMIKOA</u>	
	<u>LETREKIN ETA ZENBAKIETAN</u>	
	PREZIOA (letrekin)	
	PREZIOA (zenbakietan)	
	BEZ (%.....)	
	GUZTIRA	

(Lekua, data eta sinadura)



ADMINISTRAZIO KONTSEILUAK

2014 UZT. 24

.....(e)an onartua
Aprobado por Consejo de Administración.

Hernani,

2014 UZT. 24



Idazkaririk,

II. ERANSKINA EGIKARITZE-EPEA BETETZEAREN INGURUKO KONPROMISO-EREDUA


.....jn./and., adin nagusikoa,.....helbidearekin etaNAN zenbakiarekin,
.....(e)n izenean eta ordezkaritza gisa,egoitza sozialarekin eta
.....IFK zenbakiarekin, Tel. zkia. Fax zkia. edota
posta elektronikoa.....

AZALTZEN DU

egikaritzeko konpromisoa hartzen duela, baita horiek ere, (zenbakietan) egikaritze-epean.

(Lekua, data eta sinadura)

GIPUZKOAKO HONDAKINEN KUDEAKETA (GHKA, SAU)



III. ERANSKINA AITORPEN ARDURATSUAREN EREDUA

(Pertsona natural edo fisikoari dagokionean)

..... jn./and., adin nagusikoa,
..... NAN zenbakiarekin etahelbidearekin[Tel.
..... fax..... edota posta elektronikoa] **aitortzen du** Administrazio Publikoarekin
kontratatzeko ahaldunduta dagoela. Izan ere, obrak egiteko ahalmen osoa du, eta SPKLTBren 60. artikuluan
aurreikusitako inolako egoerapean erori gabe dago. Bereziki, berariaz aitortzen du lanean segurtasun eta osasun
gaietan arau-hauste oso larriagatik izaera irmoko zigorrik jaso ez izana, SPKLTBren 60.1 artikuluan ezarritakoaren
arabera.

Era berean, aitortzen du:

- Indarrean dauden xedapenek ezarritako zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak ere egunean daramatzala, HAKLEOren 13 eta 14 artikuluetan aurreikusten denaren arabera (urriaren 12ko 1098/2001 ED).
- Jarduera Ekonomikoen Zergan alta emanda dagoela kontratuaren xedeari dagokion epigrafean, eta zerga horren matrikulan baja ez dela eman.

Era berean aitortzen du [plegu honen bederatzigarren klausularen 1go atalaren (1go gutun-azala: gaitasuna eta kaudimena) a) edota d) letretan aipatutako egoeren egiaztapena han aipatzen diren ziurtagirien bidez egiten denean] aurkeztutako edozein egiaztagiritan islatutako egoerak ez direla inola ere aldatu.

Esleipenduna proposatzen dutela ateratzen bada, **BAI** **EZ** (*) **BAIMENA EMATEN DIO** berariaz GHK, SAUri, Gipuzkoako Foru Aldundiarekin dituen zerga-betebeharrak betetzen dituela egiaztatzen duen informazioaren lagapena egin dadin.

(Lekua, data eta sinadura)

(Sozietate edo Pertsona Juridikoari buruzkoa denean)

.....jn./and., adin nagusikoa,NANarekin
eta.....helbidearekin,.....(e)n ordezkari gisa,
.....IFKrekin [Tel. fax..... edota posta elektronikoa] **aitortzen du**
Administrazio Publikoarekin kontratatzeko ahaldunduta daudela bai bera zein ordezkatzan duen enpresa ere. Izan
ere, obrak egiteko ahalmen osoa du, eta SPKLTBren 60. artikuluan aurreikusitako inolako egoerapean erori gabe
dago. Bereziki, berariaz aitortzen du lanean segurtasun eta osasun gaietan arau-hauste oso larriagatik izaera irmoko
zigorrik jaso ez izana, SPKLTBren 60.1 artikuluan ezarritakoaren arabera.

Era berean, aitortzen du:

- Indarrean dauden xedapenek ezarritako zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak ere egunean daramatzala, HAKLEOren 13 eta 14 artikuluetan aurreikusten denaren arabera (urriaren 12ko 1098/2001 ED).
- Jarduera Ekonomikoen Zergan alta emanda dagoela kontratuaren xedeari dagokion epigrafean, eta zerga horren matrikulan baja ez dela eman.

Era berean aitortzen du [plegu honen bederatzigarren klausularen 1go atalaren (1go gutun-azala: gaitasuna eta kaudimena) a) edota d) letretan aipatutako egoeren egiaztapena han aipatzen diren ziurtagirien bidez egiten denean] aurkeztutako edozein egiaztagiritan islatutako egoerak ez direla inola ere aldatu.

Esleipenduna proposatzen dutela ateratzen bada, **BAI** **EZ** (*) **BAIMENA EMATEN DIO** berariaz GHK, SAUri, Gipuzkoako Foru Aldundiarekin dituen zerga-betebeharrak betetzen dituela egiaztatzen duen informazioaren lagapena egin dadin.

(Lekua, data eta sinadura)

(*) Ez dagokiona marratu

2014 UZT. 24

Aprobado por: Consejo de Administración. (e)an onartua

Hernani,

2014 UZT. 24
JUL. 24

Idazkaririk,

IV. ERANSKINA LOTETSITAKO ENPRESEN AITORPEN-EREDUA

.....jn./and., adin nagusikoa,NAN zenbakiarekin
eta.....helbidearekin,(e)n ordezkari gisa,
.....IFZarekin etahelbide sozialarekin [Tel.
..... fax..... edota posta elektronikoa] aitortzen du ordezkatzeko duen enpresa:

- BAI**, Merkataritza Kodearen 42.1 artikuluan suposizio batetakoan dagoela.
- EZ**, Merkataritza Kodearen 42.1 artikuluan inolako suposizioetan ez dagoela.

Baiezko erantzuna emanez gero:

- EZ**, ez du talde berdinekoak diren, edo Merkataritza Kodearen 42.1 artikuluan ezarritako aukerako suposizioetako bateren bat izan eta banakako proposamenak aurkezten dituzten enpresekin parte hartu kontratuaren esleipenean.
- BAI**, talde berdinekoak diren, edo Merkataritza Kodearen 42.1 artikuluan ezarritako aukerako suposizioetako bateren bat izan eta banakako proposamenak aurkezten dituzten enpresekin parte hartu du kontratuaren esleipenean. Hauek dira banakako proposamen horiek:

IFZ ZKIA.:

Izen soziala

(Lekua, data eta sinadura)

(*) Merkataritza Kodeko 42.1 artikulua:

“Edozein sozietate taldetako sozietate nagusiak atal honetan aurreikusten den bezala eman behar ditu urteko kontu eta kudeaketa txosten finkatuak. Sozietate nagusi identifikagarririk ez duten taldeetan, lehen finkatze datan aktiborik handiena zuen sozietatearena izango da betebeharrak hori.

Sozietate batek baino gehiagok erabaki unitate bat osatzen dutenean taldea sortzen dute. Zehazki, erabaki unitate bat badagoela esango da, sozietate bat beste sozietate bateko bazkide denean –lehenari nagusia eta bigarrenari mendekoa deituko zaie–, eta nagusia mendekoaren barnean kasu hauetakoren batean dagoenean:

- Boto eskubideen gehiengoa duenean.
- Administrazio organoko kideen gehiengoa izendatzeko edo kargutik kentzeko eskumena duenean.
- Beste bazkide batzuekin lortutako akordioen bidez boto eskubideen gehiengoa eskuratu dezakeenean.
- Kontu finkatuak emateko garaian eta horren aurreko bi ekitaldietan administrazio organoa osatu duten kideen gehiengoa bere botoekin bakarrik aukeratu duenean. Kasu honek ez du finkapena eragingo, baldin eta izendatutako administratzaile horien sozietatea beste batekin elkartuta badago artikuluko honetako lehenengo bi hizkietan aurreikusitako kasuren batean.

Ondorio horietarako, entitate nagusiaren boto eskubideei erantsi egingo zaizkie mendeko sozietateen bitartez dituen boto eskubideak, norberaren izenean baina entitate nagusiaren edo beste mende entitate batzuen kontura diharduten pertsonen bitartez dituenak, eta beste edonorekin egindako hitzarmenaren bitartez dituenak”.

V. ERANSKINA ERREGISTROAN PROPOSIZIOA EMATEKO EREdua

.....jn./and.NAN zenbakiarekin, bete izenean edo
enpresaren ordezkari gisa,IFZ zenbakiarekin, etahelbidearekin, Tel. Zkia.
..... Fax zkia. edota posta elektronikoa.....

ADIERAZTEN DU:

Gaur, (*) orduetan, EPELEN (BERGARA) KONPOSTATZE-PLANTAREN ETA HONDAKINEN
TRANSFERENTZIA-GUNEAREN OBRAK ETA INSTALAZIOAK ZEIN HORIEK MARTXAN JARTZEKO
proposamena osatzen duten 3 gutun-azal ematen dituela.

Hernanin,ko.....(a)ren.....a

Sin.:

(Aurkezlearen sinadura)

